

txintxarri

2022-12-23 OSTIRALA / 1610. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

Eguberri on denoi!

San Tomas azokan motorrak berotuta, Mari Domingi eta Olentzerori ongiatorria egingo diete herritarrek hilaren 24an / 4-5

TXINTXARRI




Ges aseguruak



Eguberri on!

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!



Pablo Mutiozabal kalea 2 - 1. solairua, 8. bulegoa - Tel. 943-36 58 99 - cristina_arteaga@ges.es - Lasarte-Oria

Ttaku
kun

Kultur Elkartea

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

54€ urtean

zuk

54€
urtean
ordaindu

guk

Euskara eta
kultura
sustatuko
dugu

Errenta
aitorpenean

%20ko
kenkaria
izango duzu

Euskara eta kultura bidelagun!

On-line egiteko:

www.txintxarri.eus/bazkidetu



**URTARRILAREN 15a baino lehen
bazkide egiten bazara urteurreneko
poltsa edo botila opari eta otar
baten zozketan sartuko zara!**





Asertibitatea da bidea



Kaixo Lasarte-Oriako euskotxitak!

Beste behin ere ongi etorri gure kanalera. GuruBaga eta GuruBiga gara gu, euskararen GuruBuruak. Oraingoan, YouTube erabili beharrean, eskutitz bidez jarriko gara zuekin harremanetan, Testamentu Berrian korintiarrei eginiko gutuna bezala. Ikusten duzuenek, gure erlijioak ere, hau da, euskarak ere, moda guztiak jarraitzen ditu. Euskara dago oso

itsatsia... Lottite gehiago beharko luke? Agian bai, baina erresistentzia handikoa denik ezin uka!

Are gehiago, Lasarte-Orian zein itsatsia dagoen ikustea besterik ez dago! Gure erlijioak, euskarak, asko dauka Lasarte-Oriari eskertzeko, bertan jai baitziren ahobiziak eta belarriprestak. Lasarte-Oria da gure Jerusalem eta gu horregatik etorri ginen. Azken hilabeteetan gure gurutzaldia (Euskaraldia) sufritzeko aukera izan dugu bertan, eta gure hitza zabaltzeko aukera eskaini zigun herriak.

Honezkerok, lasarteoriatarrek badakite euskararen bidean zein urrats eman ditzaketen. Hona hemen hori konpronbatzeko test azkar bat: badakizue geure erlijioan beldurra sortzen duten gaztelerazko hiru hitz mingarriek: _____ Nola erantzun, ezta?

Batetik, euskararen arnasa hartu beharko dute: ()RNASA.

Eta bestetik, aditz egokiaren bila abiatu: ze zu haiek _____, ni zu _____, beraiek ni _____ eta hortaz, gu zuek _____.

Beraz, zer izan behar gara denok? ()URA.

Be water edo salda my friend! Eusko Jaurlaritzaren arabera, Guruburuon lana amaitu da, gurutzaldia amaitu delako. Baina, lagun, zuk eta nik, hau da, guk, ongi dakigu geure mandamentuak lepoan hartu

eta aurrera jarraitu beharra dugula. Momentu zailenetan Laboa Konstruktore gogoan izan eta euskara zure baitan.

Gure baitan, gure baitan, gure baitan __ __ __ !!!

Eta urte berrian sartu baino lehen jarri erronka berri bat zuen buruari: izan daiteke txikia, izan daiteke handia, baina izan dadila: aurten Mari Domingirekin euskaraz hitz egingo dut; aurten mozkortzen naizenean txorrada guztiak euskaraz esango ditut (mozkortu gabe ere txorradak euskaraz esango ditut); aurten karneta berri edo pasaportea egiterakoan bertako langile guztiarekin euskaraz hitz egingo dut beldurra sentitu gabe... Estres linguistikorik gabe, asertibitatea erabiliz.

Asertibitatea da bidea, asertibitateak pertsona hobea egiten gaitu, beraz euskarak mundu hobea egiten du.

Gu zuek maite gatzazkiokotugu!

GuruBaga eta GuruBiga.

P.D.: Hitz egitea ongi dago e, batez ere euskaraz, baina gogoratu batzuetan Taitxi ahoa ere praktika dezakezuela ;)

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iratz Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:

Lide Hidalgo, Uxue Odriozola,
Julene Iraola, Egoltz Epelde,
Endika Merchan, Gorka Morales,
Sergio Hernandez, Ander Hazas
eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Legue Gordailua:

SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Xixuko, Mari Domingi eta Olentzero, 2019ko abenduko kalejiran. Hiru urte geroago, kaleetara itzuliko dira. TXINTXARRI

Iristear dira Mari Domingi eta Olentzero

Pertsonaia kuttun horiei eta haien lagunei ongietorria egiteko egitaraua prestatu du Ttakun Kultur Elkarteak, udalarekin elkarlanean: eskutitzak jasoko dituzte goizean Mari Domingik eta Olentzerok; arratsaldean, berriz, kalejiran irtengo dira, Loidibarren frontoitik Okendo plazaraino

Txintxarri

Bihar, hilak 24, egun berezia izango da lasarteoriatarrentzat: menditik jaitsiko dira Mari Domingi eta Olentzero, opariak eta zoriontasuna ekartzera. Ohi bezala, ez dira bakarrik egongo: lagun izango dituzte Mari Teilatuko, Xixuko ahatea eta Porrotx pailazoa. Horiei guztiei

ongietorria egite aldera, egitarau bat prestatu du Ttakun Kultur Elkarteak, Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean.

Herriko ikastetxeetako haurrak kalejiran aterako dira goizean, 10:15ean, Isla plazatik. Erdigunean barrena ibili eta gero, Okendo plazan amaituko dute ibilbidea. Sasoetako nahiz Landaberriko

guraso elkarteek prestatutako txokolate bero eta goxoa zain izango dute bertan.

Haurren zain egongo dira baita ere Mari Domingi eta Olentzero, 12:00etatik 14:00etara, Antonio Mercero aretoan. Txikienen eskutitzak jasoko dituzte bertan, ordu batzuk geroago banatuko dituzten opariak zeintzuk izango

Xixuko, herriko ikastetxeetan



Sasoeta Zumaburuko ikasle talde bat, Xixukorekin. TTAKUN KULTUR ELKARTEA



Garaikoetxea Landaberriko liburutegian izan da ahate maitagarria. TTAKUN K.E.

Maitasuna eman, eta marrazkiak jaso. Sasoeta Zumaburu eta Garaikoetxea Landaberri ikastetxeetan izan da berriki Xixuko ahatea, bertako ikasle eta irakasleak bisitatzen. Ikasleek egindako marrazki politak jaso ditu; Ttakun KEK Okendo plazan jarriko ditu hilaren 24an.

diren jakiteko. Bazkalostean, lagunekin elkartu eta kalejiran aterako dira, Loidibarren frontoitik, 18:00etan. Kalez kale ibili eta gero, Okendora joango

dira, ekitaldia egitera, 18:30ean. Abesti, dantza eta era guztietako sorpresak ez dira faltako. Bihotzak beteta, opari zakuak hustuko dituzte gauean zehar.

MUGICA & ABURRUZA

aseguru artekaritza, S. L.

*IBILGAILUAK

MOTOZIKLETAK
AUTOMOBILAK
AUTOKARABANAK
FURGONETAK
KAMIOIAK...

*MERKATARITZA

*BIZITZA ETA
ERRETIROAK

*OSASUNA

*ISTRIPUAK ETA
GAIXOTASUNAK


*ERANTZUKIZUN
ZIBILA

*ETXEBIZITZA ETA
KOMUNITATEAK

*INBERTSIOAK

*PYMEAK...

Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA - Tel.943-36 22 75 & FAXA: 943-37 24 13



Eguberri on!



MUGICA

Okendo plaza hartu du azokak

Eguberrietarako motorrak berotu dituzte herritarrek

Talo eta gaztain usain gozoak lasarteoriatar ugari liluratu baditu ere (ikusitako ez zen egin behar zer-nolako ilara zegoen tiketak erosteko), Martina txerriak eta haren kumeek sortu dute ikusmin handiena. Gazte eta heldu, asko izan dira animalia ikustera pasa direnak.

Sukalde lanetan eta zerbitzatzen aritu direnek aipamen berezi bat merezi dute. Talogileek, zer esanik ez: 17:00etatik hasita, jo eta fuego aritu dira, arto irinari forma eman eta plantxan egosten. Kontaezinak izan dira egin dituzten opilak, eta deskribaezina zenbat gozatu duten ahora eraman dituztenek. Alboan jarri dute gaztainen postua, eta geratu gabe aritu dira horiek ere. Plazako arkupeetan postuak jarri dituztenek ere nekez izan dute arnas pixka bat hartzeko unerik, esan bezala, jendetza joan baita azokaz gozatzera. Giroa sortzean lagundu du, nola ez, eguraldiak: tarte batzuetan tanta batzuk erori badira ere, sagardoak bota ditu zipriztin gehien.

Takun Kultur Elkarteak udalarekin elkarlanean antolatu duen egitarauan ez dira falta izan kultur ekitaldiak: Xumela koruaren emanaldia, Kuadrillategiko gazteen bingoa eta Plaza Dantzako lagunak saioaz gozatu dute plazara bildu direnak. Dantza egin ala ez, San Tomas azokara bertaratu diren guztiak beroketa ederra egin dute Eguberrietarako.



Martina txerriak ikusmin handia sortu du herritarren artean, hasieratik. TXINTXARRI



Plaza Dantzako lagunak mugimenduan jarri dituzte azokara joandakoak. TXINTXARRI



Talogileek izugarritzko lana egin dute, beste behin. TXINTXARRI



Txikienek ere gustura jan dituzte taloak. TXINTXARRI



Besteak beste, Xumela koruak giroa du arratsaldea. TXINTXARRI



Lucia ile-apaindegia

Kale Nagusia 67, LASARTE-ORIA Hitzordua hartzeko; deitu edo [688 85 17 50](https://www.whatsapp.com/business/profile/688851750)



zerbitzu mistoa

Eguberri zoriontsua opa dizuet!

**Bueltan naiz
ile-apaindegian!**



Tradizionala, tradizionalki

Lasarte-Oriako Udalak jarduerak antolatu ditu Gabonetarako: Eguberrietako Haur Parkea, San Silvestre Lasarte-Oria lasterketa, disko festa, Errege Magoei ongietorria... Horiez gain, Kultura sailak kontzertu eta film proiektzio bana aurrera eramango ditu urtea amaitu aurretik

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak egun berezi hauetan aurrera emango dituen jarduerak bainoago, horiek guztiak ohiko formatuan egingo dituela da albiste: tradizionala bilakatu dena (eta jarduera berriren bat ere bai, disko festa adibidez) tradizionalki gauzatu du. Pandemiak eragindako murrizketa, neurri eta bestelakorik ez da izango aurten. Agustin Valdivia alkateak e k i m e n e n a u r k e z p e n e a n nabarmendu duenez, "bazen garaia normaltasunera itzultzekoa. Espero dut lasarteoriatar guztiak gozatu dugula prestatu dugunaz". Alboan izan ditu Gazteria eta Festak zein Kultura sailletako buru Txus Alonso eta Maite Iglesias, eta kultur teknikari Juantxi Ugarte.

Alonsok hartu du hitza, buru den sailletik proposatu dutenaren berri emateko. Eguberrietako Haur Parkea (EHP) izan du hizpide, urtarrilaren 4ra arte zabalik egongo dena, 17:00etatik 20:00etara, egun hauetan salbu: hilaren 24an, 31n eta urtarrilaren 4an, goizez soilik irekiko dutelako; eta hilaren

25ean nahiz urtarrilaren 1ean, Eguberri eguna eta Urte Berri eguna direlako, hurrenez hurren. Puzgarri, joko eta bestelakoak Michelin pilotalekuan eta ondoko tenis pistetan jarri ditu Servicios Globales Araba SL enpresak, bi urtekoa izango den kontratua irabazi duenak. Aurrekontua 64.000 eurokoa izango da, BEZA kontatu gabe.

EHPra sartu nahi duten haurrek ez dute dirurik ordaindu beharko; helduek, aldiz, euro bat. Alonsok zehaztu duenez, goizean nahiz arratsaldean ordu eta erdiko txandak egingo dituzte, inor ez dadin "disfrutatu gabe" geratu.

Berrikuntza, disko festa

Urteari behar bezalako agurra emate aldera, San Silvestre Lasarte-Oria lasterketa aurrera

**SAN SILVESTRE
LASARTE-ORIA
LASTERKETA GOIZEZ
EGINGO DUTE
AURTEN, 12:30EAN**

eramango du zeregin horretan urte batzuk daramatzan taldeak, udalaren laguntzarekin. Aurreko aldietan ez bezala, goizez aurrera eramango dute kirol proba, 12:30ean hasita. Korrikalariek, patinatzaileek eta ipar martxalariek egingo dute sei kilometroko ibilbidea, Okendo plazatik hasita. Antolatzaileek azpimarratu dute garrantzitsuena ez dela lehiatzea, mozorrotu eta tarte eder bat igarotzea baizik.

Festa ez da 12:30an hasiko, ordu bete lehenago baizik: pintxo pote solidarioa hasiko da 11:30ean. Ekarpene ekonomiko baten truke, salda eta txorizo egosia emango dute. 12:00etan haur kanpaikadak egingo dituzte Porrotx pailazoarekin batera, eta bost minutu geroago beroketa musikatua hasiko da, Saito gimnasioko lagunaren eskutik. Azkenik, lasterketa hasi aurretik, Iñaki Urruzola DJak musika girotuko du.

Izen ematea hiru modutara egin daitekeela azaldu dute: www.sansilvestrelasarteoria.com webgunean hilaren 28ra arte, 7



Eguberrietako Haur Parkeko berrikuntzetako bat tiobibo hau da. TXINTXARRI



San Silvestre lasterketaren seigarren aldia aurkeztu dute. TXINTXARRI

euoren truke; 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara Antonio Mercero gunean, hilaren 29an eta 30ean, 10 euoren truke; eta San Silvestrearen egunean bertan, 10:00etatik 11:00etara, Antonio Mercero gunean, 15 euoren truke. Parte hartu nahi duten

lasarteoriatarrek 16 urte izan beharko dituzte gutxienez.

Mozorro onenen sariak eta opariak banatuko dituzte proba amaitu eta gero. Hori baino lehen, trafikoa moztuko dute zenbait gunetan, 12:00etatik 14:00etara.

Gorputza astintzeko motiborik ez da faltako goiz horretan, eta

**Carrefour
express**

Juan XXIII plaza, Lasarte-Oria

arratsaldean ere ez, disko festa bat antolatu baitu udalak, bi txandatan egingo duena: 19:00etatik 20:30era aurrenekoa, familientzat; eta 01:00etatik 04:00etara bigarrena, bapo afaldu ostean parranda ordu txikietara arte luzatu nahi dutenentzat. DJ eta karpa bana jarriko dituzte, Andatza plazan. Sartzeko ez du dirurik ordaindu beharko inork.

Errege Magoen etorrera

Urte berria hasi eta egun gutxitara etorriko dira herrira Melchor, Gaspar eta Baltasar, urtarrilaren 5ean zehazki, ostegunarekin. Ohi bezala, Megaba elkarteak prestatu ditu Errege Magoei harrera egiteko jarduerak. Jakinarazi dute zuzi eramaileak beharko dituztela kabalgatarako; parte hartu nahi dutenek cabalgatalasarteoria@gmail.com era idatzi behar dute.

Egun horretan, 12:00etatik aurrera, Okendo plazan izango dira pajeak, hara bertaratzen diren haurren eskutitzak jasotzen. Bien bitartean, Atsobakar egoitzara joango dira Errege Magoak, bertako egoiliarrek

bisitatzera. Bazkaldu eta gero, Ama Brigitarren komentura joango dira, gaztetxoekin hitz egin eta argazkiak ateratzera, 15:30etik 17:30era arte. Ordu erdi geroago abiatuko da kalejira, Oria auzotik. Herrian barrena ibili eta goxokiak banatu ostean, Okendo plazan amaituko dute. Atsedean apur bat hartuko dute gero, gau luzea izango baitute aurretik.

Musika eta zinema

Udaleko Kultura sailak ere antolatu ditu zenbait emanaldi. Aurrenekoa Udal Musika Eskolako ikasleen Eguberrietako kontzertua izan zen, hilaren 21ean, kultur etxeko auditorioan. Hilabeteotan gogoz entseatutako piezak partekatu zituzten ikusentzuleekin: gabon kantak, abesti garaikideak eta klasikoren bat ere bai, The Police taldearen *Every breath you take*, adibidez.

Tradizional bilakatu den gospel kontzertua emango du Sand&The Soulshine Voices taldeak hilaren 29an, kultur etxean. Sarrerek 14 euro balio dute. Teknikari Juantxi Ugartek aurkezpenean azaldu duenez, boskotea

Montpellier hiritik dator (Frantzia). Bestalde, hurrengo egunean, *Todo el mundo odia a Johan* filma proiektatuko dute (jatorrizko bertsoia, azpidatziekin) Okendo Zinema Taldearekin elkarlanean. Sarrerek 6 euro balio dute.

Areto txapelketa eta Buruntza

Udalak antolatutako jardueraz gain, beste zenbait eragilek ere prestatu dituzte ekimenak, kirol arlokoak batez ere. Horieta bat da Eguzki Areto Futbola klubaren Gabonetako txapelketa, hilaren 26an hasiko dena, astelehenez. Benjamin, alebin eta infantil kategorietako hamasei taldek izena eman dute. Final handiak urtarrilaren 7an jokatuko dituzte, larunbatez.

Bestalde, Ostadar SKTko Mendi sailak igoera prestatu du Buruntza mendira, Ttakun Kultur Elkartearekin elkarlanean, urteko azken egunean. Antolatzaileek zehaztu dute hamaiketako izango dutela mendizaleek 10:00etatik aurrera eta eramandakoa bukatu arte, San Roke baselizaren alboko arkupeetan.



Urtarrilaren 5ean etorriko dira Melchor, Gaspar eta Baltasar. TXINTXARRI



'Ole-Olentzero' abestu zuten Udal Musika Eskolako ikasle gazteek. TXINTXARRI

ahatekinak
ehizak eta hegaztiak
bakailao gezatua
onddoak
marinatuak
olagarroa



aldika  productos selectos

Industrialdea 19-20 LASARTE-ORIA • Tel.: 943-37 70 89
aldika@aldika.com • www.aldika.com

**Aurreratu zure eskariak
telefonoz edo emailaz**

A2car

16" edo 17" llanta

2 gurpil 4 gurpil

20€ 50€

18" edo handiagoak

2 gurpil 4 gurpil

35€ 80€

urtarrilaren 31ra arte

Continental
The Future in Motion



**Continental gurpil all season
edo negukoak erosteagatik
erregai txekea eskura dezakezu**

**Zumaburu 18 Lasarte-Oria
Tel: 943-36 24 63**

MAITE

ESTETIKA ARETOA

Bezere agurgarria, urte amaieran erretiroa hartuko dut

Zorionez Mariak eta Ainhoek negozio honetan lanean eta martxan jarraituko dute. Gai burokratikoak direla eta, urtarrilean egun batzuetan itxita egon beharko du (ahalik eta laburrena izatea espero dugu).

Nire esker beroena, honaino iristea posible egin duzuen pertsona guztiak.

mila esker!

Usitin kalea z/g · 943-370845 LASARTE-ORIA



Maite Erkizia eta Ainhoa Egaña, Blas de Lezo 5 zenbakiko lokalean. TXINTXARRI

Maite Erkizia: "Pena ematen dit uzteak, baina gustura nago hartutako erabakiarekin"

Blas de Lezo kalean bizi den edonork ezagutzen du Maite Erkizia ile-apaindegia, izan ere, 1978ko abenduaren 4an zabaldu zuen negozioa jabeak, Maite Erkiziak berak, Andoaindik Lasarte-Oriara bizitzera etorri zenean. "Herriko mutil bat ezagutu, eta pisu bat erosi genuen 18 urterekin, Blas de Lezo kaleko 5. zenbakian". Gaur egun lokal dotore bat dute, baina hasierako urteetan etxean bertan artatzen zituen bezeroak Maitek, Ixiar ahizparekin batera, 2. solairuan. "Lehen momentutik lan mordoa izan genuen, bezero asko etortzen zen: a tope ibiltzen ginen, baina oso-oso gustura beti".

Ile apaindegia ireki eta sei urtera jaio zen Maiteren lehen alaba, Naiara. Zazpi urte geroago bigarrena, Eneritz. Familia izatea erabaki zuen Ixiarrek ere, eta orduan erabaki zuten langileak kontratatzea. "Garai horretan hasi zen lanean Ainhoa Egaña, 30 urte daramatza gurekin". Berak hartuko du Maiteren lekukoa, ia lau hamarkada eta erdi pasa ostean erretiroa hartzea erabaki baitu. "Nire buruari 'bukatu da' esan diot, uzteko garaia dela uste dut, bilobak ditut honezkero... Pena ematen dit, baina gustura nago hartutako erabakiarekin". Pozik eta lasai pasako dio lekukoa Ainhoa lankideari Maitek. "Gure bezeroak ongi tratatzen jarraituko duela badakit; ilusioa egiten dit berak jarraitzeak ile-apaindegiarekin".

Esker hitzak bezero, auzotar eta familiari

"Lasarte-Oriatik bakarrik ez, leku askotatik etorri izan dira bezeroak gugana; eskerrak eman nahi dizkiet horiei guztiei", adierazi du Maitek, hunkituta. Hitz ederrak izan ditu baita ere Blas de Lezoko auzotar eta gainerako herritar guztientzat, baita familiarentzat ere: "Agur ekitaldi bat antolatu zuten hilaren 17an, sorpresa izan zen niretzat, ez nekien ezer!", aitortu du. Horregatik ere "oso-oso pozik" dagoela esan du Maitek: "Oso egun polita izan zen".

Maite Erkizia
Eguberri on! Ile-apaindegia
Blas de Lezo kalea, 5 - 20160 Lasarte-Oria - 943-37 02 54



Aterpeko kideak, sarituak eta udal ordezkariak, sari banaketa ekitaldian, udalbatzar aretoan. TXINTXARRI

Ventanas Alcar-en erakusleihoa, ederrenea

Bat etorri dira epaimahai profesionalaren eta herritarren iritzia Gabonetako erakusleihen lehiaketan. Horien balorazioak kontuan hartuta, Ventanas Alcar izan da bi garaikur nagusien garailea; Laura Recio eta Encarna Alejos herritarrek ere sari bana jaso dute

TxinTxarri

Gabonetako erakusleihogustukoenak saritu ditu Aterpea merkatarien elkarteak. Udalbatzar aretoan egin dute ekitaldia, eta Lasarte-Oriako komertzianteeekin batera, Lourdes Acevedo alkateaordea eta Miguel Trueba Rural Kutxako ordezkaria. Azken horiek arduratu dira garaikurrak banatzeaz.

Urtero bezala, aurten ere hiru sari banatu dituzte. Epaimahai profesionalak aukeratutako saritua jakinarazi dute lehena. Amaia Gonzalez Caballero dantza eskolako Amaia Gonzalez, Biyak Bat egoitza, Rural Kutxa eta Ttakun Kultur Elkarteak osatu dute epaimahaia. Horien iritziek

deliberatu dute Ventanas Alcar-en Gabonetako dekorazioa garaile. Bigarren postuan sailkatu da Mabel arropa denda, eta hirugarrenean, aldiz, Ormazabal loradenda.

Aterpearen saria banatu dute gero. Ohi bezala, herritarrek aukeratu dute irabazlea, eta aurten, bat etorri da horien iritzia, epaimahai profesionalarekin, izan ere, sari horren garailea ere Ventanas Alcar izan da. Bigarren postua, berriz, Mabel arropa dendak eskuratu du, eta, herritarren hirugarren erakusleihogustukoena Alba arropa dendarena izan da. Bertan parte hartu duten lasarteoritarren

artean 200 euroko bi erosketa txartel zozkatu dituzte (bat sare sozialen bidez bozka eman dutenen artean, eta, bestea, ordea, postontzietan bozkatu dutenen artean) eta Laura Recio eta Encarna Alejos izan dira sarituak.

Sariak jaso eta gero, hitza hartu zuen Ventanas Alcar-eko jabe Luis Mari Carballo hartu du hitza, eta esan, irailaz geroztik aritu direla apaingarriak prestatzen. Lan asko egin dutela adierazi du, eta, noski, eskerrak eman dizkie euren erakusleihorekin alde bozkatu dutenei.

Ekitaldia amaitu ostean, Buenetxea tabernara lekualdatu dira eta luntxa egin dute bertan.

PAINTBALL DONOSTI
WWW.PAINTBALLDONOSTI.COM
PAINTBALL ESPERIENTZIA BIZI
Zatoz Gabonetan!
Petritza Bidea, 12 Zubieta
661 56 84 41 | info@paintballdonosti.com

adats
ile-apaindegia
2023 zoriontsua izan dezazuela!!
Geltoki kalea 3
MUGIKORRA: 600 52 39 88
LASARTE-ORIA

Filmak gaia aukeratu dute Inauteria janzteko

Aurtengo gaia hautatzeko udalak parte hartze prozesuan bildutako proposamenak aztertu ditu, eta horien artean bakarra aukeratu. Inauterietako lantaldearekin batera egin du lan hori. Egitaraua lantzen ari dela ere jakinarazi du, baita zabalagoa izango dela

Txintxarri

Berriki ezagutarazi du udalak 2023ko Inauterietako gaia Filmak izango dela; Agustín Valdivia alkatea, Parte hartzea eta Gardentasuna saileko arduradun Nagore Duran eta Festak saileko Txus Alonsok iragarri dute hori, prentsaurrean. Gaia jakinarazteaz gain, azaldu dute hori zehazteko martxan jarritako parte hartze prozesuan 133 proposamen bildu zituztela (98 sarean, eta 35 postontzietan) eta 74 gai.

Proposamen horiek guztiak Inauterietako bileretan parte hartzen duten konpartsa eta herritarrekin elkarbanatu



Haur bat Fionaz mozorrotuta. TXINTXARRI

zituen udalak, eta, lehen aukeraketan hamalauko zerrenda osatu zuten. Horiek bigarren aldi batean aztertu eta gero, hiru gai izan zituzten esku artean, eta, horietatik erabaki zuten behin betikoa: Filmak.

Egitarauari dagokionean, lanean ari direla nabarmendu du, eta oraindik informazio gehiegirik aurreratu ezin izan duten arren, programazioa zabaltzeko asmoa agertu du Alonsok, alorreko zinegotziak.

Otsailaren 17, 18 eta 19ko asteburuan ospatuko dituzte Inauteriak.



NEURE KABUZ

ASIER ODRIÓZOLA

Zizka-mizkak

Pikoteoa, alegia. Pikoteo hilabetea da abendua. Zizka-mizka hilabetea. Trinkoa, joria, bete-betea. Eta ez bakarrik gabonetako otorduengatik (hor bai neurritz kanpoko zizka-mizka eta bigarren plater eta hirugarren eta enegarren...), baizik eta erotuta ibiltzen garelako erosketa, opor, opari, loteria eta beste. Aurten gainera izan dira ahaztu ezinezko bi ekitaldi planetario: munduko futbol kopa eta euskaldunon planetan hain iltzatuta dagoen Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala. Zurrumbilo horretan guztian ibilia naiz zilipurdika.

Argentina txapelkun geratu osteko hausnarrean, sinetsi ezinezkoa da hankaz gora dagoen herrialde batean garaipen bat zenbateraino ukendu den milioika lagunentzat. Futbola erlijio, Messi Mesiah berria. Eta juerga osteko ajea datorrienean, izango dute lana han hain estimatuak diren terapeutek. Terapiaren antza hartzen du loteriak ere. Urrunean umeen zenbaki eta diru kopuru hotsa entzuten ari naiz idazten. Mantra moduan. Hots hori, bertso finalean entzundakoekin nahasten ari zait. Gozamina beste behin ere. Zortzi artista, zortzi burmuin sorlanean eta 13.000 lagun burmuinak sorlan horrekin gozatzen. Askoren burmuin umilak ez ginen ordea konforme geratu azken sailkapenarekin. Nik Alaia finalean sartu nuen Maialenekin batera, nire ezjakintasunetik ikusten denez. Nerea ere gorago. Lau beteranoenak lau lehenen artean. Sententzia errazegia nere ustez. Argentina-Frantzia partida izan balitz, VAR delakoa eskatuko nuke eta jakin zergatik ezarri zuten epaileek ezarri zuten sailkapena. Ariketa polita litzateke puntuazioen azalpena ematea ikus-entzuleoi, besterik ez bada ere batzuei geratu zitzaigun sensazio arraroa soinetik kentzeko. Gainerakoan, zoragarri joan zen eguna, egoitza berri eta guzti. Eta elkarri irribarre konplizea egiteko modukoa da zenbaitzuri entzutea nola bere buruari galdetzen dioten: munduko futbol txapelketako finala izan eta 13.000 lagunek uko egin horri? Aska dezatela misterioa lau urte barru sarrera bat eskuratuta. Ez dago hori ulertzeko beste modurik. Ondo pasa egun hauek eta ondorengoak, noski.

Uraitz, s.l.

Igeltseritza Orokorra

2023 urte zoriontsua opa dizuegu!



• BARRUKO BERRIKUNTZAK

• TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILAREKIN. VIPEQ F08 (EMULTSIOZ BOTATAKO ARTELAKIA) ETA S.A.T.E. SISTEMA

• GREMIOEN KOORDINAKETA KOSTU GEHIGARRIRIK GABE

• BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA DUTXA EXTRALAUARENGATIK EGUN BAKAR BATEAN

Telefonoa

693 05 93 92
943-56 66 40

uraitz@uraitz.com
www.uraitz.com

BULEGOA:
Geltoki kalea 15, LASARTE-ORIA

Eskaintza eta zozketa bidezko elkartasuna

Herriko zenbait sortzaile eta bizilagunek sortu eta emandako produktuekin, enkante kolektibo bat aurrera eraman du Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeak. Ekimena biribiltzeko, biolontxelo emanaldi berezia egin du Eñaut Zubizarreta 'Trigger' musikariak

Txintxarri

Argazkiak, egurrezko tailak, marrazkiak, baserritar jantzia, gitarra... Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeak hilaren 16an egin zuen enkantean jarritako produktu gehienak ikusgai zeuden bi mahaitan, haien aurrean bi aurkezleak eta taberna inguru guztian saioa ikusi edo erosteko gogoz joandakoak. Bea Egizabal eta Intza Alkain aurkezleak maisuki azaldu zuten pieza bakoitza; edukia eta erabilera posible ugari bururatu zitzaizkien, zalantzarik gabe.

Irteerako salneurria adierazi eta nahi zuenak bere eskaintza egin zuen. Batzuek euliak



Herritarrek taldeka parte hartu zuten enkante kolektiboan. TXINTXARRI

hiltzeko plastikozko gailuak pala gisa erabili zituzten, diru kopuru bat eskaini nahi zutelako adierazteko. Proposamenak botatzeko unea amaitzean, jabea erabakitzeke hiruko atzera kontakteta eta plastikozko mailu batekin keinua eginda, "esleituta" esaten zuten aurkezleak. Umore onez aritu ziren eta eskaintza "borrokaren" bat izan bazen ere, galtzaileek umorez onartu zuten beste norbaiten eskuetara joan izana nahi zuten hori.

Ordu eta erdi batez aritu ziren pieza guztiak pasatu arte. Batzuk jabe gabe gelditu ziren, baina antolatzaileekin harremanetan jarrita eros daitezke. Amaitzean zirela erosle anonimo batek erosi zuen umezurtz zegoen egurrezko pala, 100 eurotan. Hala ere, azken pieza GuruBuruen eskua izan zen, bost eurotan eraman zuen etxera bere jabe berriak.

Ekimena biribiltzeko, Eñaut Zubizarreta *Trigger* musikari gipuzkoarrak biolontxelo emanaldi berezia egin zuen Tiburtzio Artizar tabernan bertan.



Emanaldiko une bat. TXINTXARRI

Basoa berritu eta lurra salbatzeko nahia landatzen

Gorakada Teatroak Zuhaitzak landatzen zituen gizona antzezlanaren ekarri du herrira. Nor den jakin nahian dabilen gazte batek Elzeard Bouffer artzainarekin topo egingo du, landaretzarik gabeko Provenza inguruan (Frantzia). Zuhaitzak landatu eta landatu dabilela azalduko dio bisitariari, 10.000 haritz hazi erein ditu, basoa berritu eta lurra salbatzeko nahian. Urtero itzuliko da, hazten ari den basoa ikusteko.

INPRENTA
offset eta digitala

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU EDITORIALA

Goza ezazue jai hauetan
Urte berri on!

antza

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu ibilbidea, 2 20160 **LASARTE-ORIA**
Tel. 943-37 07 38 info@antza.eus
www.antza.eus

Garcia
AUTOBUSAK

Nafarroa etorbidea, 32 2.A
(Leku-Eder etxea) - ZARAUTZ
Tel: 609 47 94 78
info@garciabus.com - www.garciabus.com

Urte berri zoriontsua izan dezazuela!

- Edozein eratako bidaiak egiteko zerbitzu aproposak
- Bestelako zerbitzuak



TXINTXARRI

Merezitako txaloak, Eguberrietako kontzertuan

Alboka Abesbatzak Donostiako Antigua-Luberri ikastetxeko koruarekin batera ondu du aurtengo Eguberrietako kontzertua. San Pedro elizan herritar ugari bildu da, gabon kantak protagonista izan dituen erreperorioaz gozatzera. Orubete luzez aritu dira bi taldeak, lehenik banaka, ondoren, elkarrekin, Montse Latorre eta Junkal Guerreroren zuzendaritzapean, hurrenez hurren.

Sei piezako erreperorioa partekatu du Albokak, Amaia Dorronsoro piano jotzailearen laguntzarekin. Horren ostean, koruan 25 urte daramatzan Edurne Martin omendu dute: oroigarri gisa oparitutako zapia jarri eta bere argazki batzuk proiektatu dituzte pantailan. Ondoren, donostiarren txanda izan zen. Marian Iriarte piano jotzailearekin batera, zazpi abesti eskaini dizkiete ikus-entzuleei. Guerrero andoaindarrak oso hunkituta zegoela aitortu die elizan zeudenei. Izan ere, herriko musika eskolan piano irakaslea izan baitzen, eta berarentzat berezia zen Lasarte-Orian izatea. *Camdombe de San Baltasar* kantatzeko "laguntza" eskatu die bertaratutakoei eta ondo erantzun dute.

Amaitzeko, Alboka eta Luberriko kideak elkarrekin aritu dira, *Olentzero* eta *Orra Mari Domingi* abesti klasikoekin bukatuz emanaldia. Zuzendari eta piano jotzaileei lore sorta bana banatu diete eta merezitako txaloak jaso.

Horrez guztiaz gain, Albokak bazkideen artean zozkatutako eguberrietako bi saskiak banatu dituzte. Mila Picamils Olaizola eta Maria Pilar Mendiluce Gofñi herritarrek izan dira irabazleak.



JAVIERA BRAVO

Ikusitakoari lekukotza eman dio

Okendo Zinema Taldeak zineforuma egin zuen iragan ostiralean hilaren 16an. *Mi país imaginario* filma proiektatu zuten Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. Ez zen proiektzio huts bat izan, ordea; izan ere, filmaren emanaldia amaitu ostean, bertan ikusitakoa lehen pertsonara ekarri baitzuen Kevin Sohail txiletarrak; oholtzara igo eta bere lekukotzaren berri emanez. Ez da Txileko hiriburuan, Santiagon bizi, Concepcion probintzian baizik, baina herrialdean gertatutako eztanda soziala nola bizitu zuen kontatu zien aretoan bildutakoei. Sorpresatxo batekin amaitu zuen gainera bere parte hartzea. Gitarra eskuetan, Victor Jara musikari txiletar eta entzutetsuaren *El arado* abestia kantatu zuen, tarteka euskaraz ere bai.



SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma-armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



Ondo pasa eguberrietan!

Pintore kalea, 5 Lasarte-Oria | Tel: 943-36 14 71 | www.sugatecocinas.com



2023 zoriotsua izan dezazuela!

- komertzial instalazioak
- beira bikoitza
- segurtasun beirak
- dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak
- barandak
- kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA / 943-37 17 33 - 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com / anorgatxiki@gmail.com

Tintoreria **Lizardi** Tindategia



Uistin kalea 6
LASARTE-ORIA
610 28 61 05
tintolizardi@gmail.com

Arropa garbiketa eta konponketa



eguberri on!

Eguberri eta Urte Berri on!

TABERNA
Buenetxea
KAFETEGIA

Eguberri eta Urte Berri egunetan
eguerdiko 12.00etatik
aurrera **IREKITA!!**

Gabon eta
Urte Zahar gauetan
GAU OSOA IREKITA!!

Pablo Mutiozabal 2, Lasarte-Oria ! Tel. 943-36 95 08



Aiora Belartietia, Asier Sagasti eta Eulogio de la Serna, izan dira aurtengo Lirol galan saritu dituzten kirolariak. TXINTXARRI

Ahaleginari saria jaso dute herriko kirolariek

Lasarte-Oriako Udalak VII. Kirol Gala aurrera eraman du hilaren 16an Manuel Lekuona Kultur Etxean. Urteko kirolari onenen saria jaso dute Aiora Belartietia arraunlariak eta Asier Sagasti judokak, Eulogio de la Sernak, berriz, kirol ibilbidearen oroigarria eskuratu du

Txintxarri

Iazko arrakastaren ondoren, urteko kirolari onenei omenaldia kultur etxean egin dute, "modu oso publikoan" aitortza egin eta esker ona adierazteko. Amaia González Caballeroren dantza taldeak hasi zuen ekitaldia, eta jarraian, aurkezle izan zen Oihana Picos irten zen. Bertaratutakoak agurtu, eta David Sanchez Carreterok Lasarte-Oriako kirol eta kirolariei buruz egindako bideoa proiektatu zuten.

"Atzera begiratuko baduzu, zauden lekura iristeko zer lan egin duzun ikusteko izan dadila". Mireia Belmonte igerilariaren hitzekin ekin zion Agustin Valdivia alkateak bere adierazpenei, horien bidez, kirolariek duten "egunero jaikitze

gaitasuna, aurreko egunean gertatu dena gorabehera" goraipatu zuen. Hori ondo dakiten hiru aukeratu ditu udalak herritarren eta kirol taldeen parte hartzearekin. Denboraldian egindako lanagatik Aiora Belartietia Galardi arraunlaria da Emakumezko kirolari onena eta Asier Sagasti Conde judoka, Gizonezko kirolari onena; luzaroago egindakoa aitortu diote Eulogio de la Serna korrikalariari, hain zuzen ere, bere urtetako ibilbidea baita saritu dutena.

Banan bana bakoitzaren meritua erreparatu zituen alkateak:

Lehena, Aiora Belartietia Galardi. Duela bost urte saskibaloiarekiko grina alde batera utzi eta arraunari heldu zion. Geroztik Gipuzkoako

hirugarrena, Euskadiko txapelduna, ligako eta Kontxako txapeldunordea izan da bere eskifaian.

Bigarrena, Asier Sagasti Conde. Bere 30 urteetatik 26 daramatza herritarrek tatamian. Senior mailan Espainiako txapelketan 7. izan da eta beterranoenean aurtun Kopa eta Espainiako txapelketa irabazi ditu.

Azkenik, Eulogio de la Serna Velasco. 90 urteko korrikalari beterranoa, donostiarrak jaiotzez, baina bizitzaren gehiena herrian igarotakoa da. Pasioagatik korrika egiten zuen, markei kasurik egin gabe, garrantzitsuena helmugara iristea baitzen. Eta ez dira gutxi zeharkatutako amaierako marak: 28 Behobia-Donostia, azkena 74 urterekin, lau maratoni, hiru triatloi,

eta birritan Done Jakue bidea, behin oinez, behin bizikletaz.

Poza eta urduritasuna

Hamabost proposamenen artean aukeratuak izan diren omenduen azalpena egin ondoren, Oihana Picos gidariak aurkeztu zituen.

Oroigarriaren bila eszenariora igotzen lehena Belartietia izan zen. Urduri, eskerrak eman zizkien herritarrei bera aukeratu izanagatik eta sariagatik; eta taldeari, arrauna talde kirola delako eta lorpenak elkarrekin eskuratuak.

Sagasti izan zen hurrengoa. Judokak eskerrak eman zizkion familiari, "kilometro asko izan dira urte hauetan guztietan", lagunei galara joan izanagatik, eta judo

taldeari, "beraiek gabe ez nintzateke hemen egongo".

De la Serna plaka hartu gabe hizketan hasi zen, biziki hunkituta. Zer esan ez zekiela aitortu bazuen ere, izan zuen zer kontatu. Negar egitear egon zen pare bat aldiz, baina barreak eta txaloak eragin zituen bere espontaneotasunarekin. Bizitzen ari zena sinetsi ezinik zegoela azaldu zuen eta gehitu: "sari honek bizitza eman dit, bizitzen jarraitzeko indarra".

Alkateak ekitaldia amaitu zuen aurtun irabazi ez dutenei saiatzen jarraitzeko esanez eta eskerrak emanez Lasarte-Oriako kirol familia osoari. "Jarraitu eredu izaten gazteentzat eta Lasarte-Oria osoarentzat".



Zudaire (beheko ilaran, zazpigarren eskubitik hasita) gainerako saritu eta omenduekin. GIPUZKOA KIROLA

Munduko txapelketako jarduna

Gipuzkoako Kirol Gala egin zuten Donostiako Tabakaleran, hilaren 13an. Gipuzkoako 2022ko kirolari nabarmenenak elkartu ziren hitzorduan. Gipuzkoa Kirola Saria 20 urtez azpiko Munduko Txapelketa irabazi duten Real Sociedad taldeko bost jokalarik eta Jokin Altuna pilotariak jaso zituzten.

Alabaina, Gipuzkoako Foru Aldundiak Europako eta Munduko txapelketetan Gipuzkoako kirolak lortu dituen arrakastak aitortu nahi izan ditu aurtun ere eta txapelketa horietan podium bat lortu duten kirolari guztiei txapel bat oparitu zien ekitaldian. Horietako bat izan zen, Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudaire; Igeriketa egokituko munduko txapelketan 400 m. probako brontzea jantzi zuen Zubietako gazteak.



M. BERASATEGI

DESDE 1961 ETIK

• KAFE & TEA •

Din, Dan, Don,
Eguberri on!



www.cafesberasategi.com

Gaztedik, ezin Euskal Errugbi Liga eskuratu

Jeunesse Sportive Villeneuveise talde akitaniarra 10-5 gailendu da Euro Basque Rugby Challenge-Euskal Errugbi Ligako finalean. Frantziako Etorkezuneko taldeen mailan, berriz, Alex Saleta neguko txapeldun izan da Saint Jean de Luz Olympique-rekin

Txintzarri

Euro Basque Rugby Challenge-Euskal Errugbi Ligako finala jokatu zuten hilaren 18an, Hernaniko Landare zelaietan.

Gasteizko Gaztedi eta Akitaniako Jeunesse Sportive Villeneuveise taldeak izan ziren aurrez aurre. Iparraldeko taldea garaikurra eramateko faboritoa zen; Aizpea Racamonde herritarra kide duen Gaztedik ez zuen amore eman, ordea.

Bi taldeak indarrez atera ziren zelaira. Partida parekatua izan zen eta azken minutura arte Gaztedi garaipena lortzeko borrokan aritu zen arren, Villeneuve de Marsanek eraman zuen saria.



Aizpea Racamonde (ezkerrean), partida baten ostean. GAZTEDI RUGBY TALDEA

Finalaren aurrekari modura, Euskal Ligako zazpigarren jardunaldiko norgehiagokaz ere gozatu zuten errugbi zaletuek. Paola Vega herritarraren Hernani Durango Rugby Taldearen aurka

neurtu zituen indarrak. Bi taldeek ederki borrokatu zuten eta 10-14 amaitu zen partida.

Neguko txapeldun

Bestalde, Frantziako Espoirs edo etorkizuneko mailan, Saint Jean de Luz Olympique taldeak bere multzoko buru bezala amaitu du neguko liga, Rugby Club Auch-ekin puntutan berdinduta. Donibane Lohitzuneko taldean Alex Saleta herritarra ari da lehian.

Hilaren 11n jokatu zuten ligako azken jardunaldia. Hamabostekoan izan zen herritarra eta entsegu bat ere egin zuen US Tyrosse talderen aurka.

Ostadar Boleibol taldeek, ezin garaipena lortu Gabonen aurretik

Jubenil taldeak ez du jardunaldirik izan; hilaren 11n amaitu zuen aurretiko fasea eta bere multzoko buru da

Txintzarri

Ostadar Boleibola taldeko infantil taldeek euren zaletuen aurrean jokatu zuten Gipuzkoako aurretiko faseko azken jardunaldia, Maialen Chourraut kiroldegian. Ostadar A zein B taldeak Hernaniren aurka lehiatu ziren hilaren 17an eta bi partidetan aurkaria izan zen garaile.

Eguneko lehen partida borrokatua izan zen eta azken setean erabaki zen (25-17, 15-25, 20-25, 25-11 eta 7-15). Bigarrenean, aldiz, 0-3 nagusitu zen Hernani 2.

Euskal Ligako taldeek ere ez zuten zorte hobirik izan eta biek 1-3 galdu zuten.

Mutilen taldeak lehen seta eskuratu arren, gainerako hiruretan ezin izan zuen Udapa Jatokideren jubenilen aurka.

2. mailako jokalariek ederki egin zioten aurre Navarvoleyri.



Infantil mailako partida. TXINTXARRI

Alabaina, lehen seta bakarrik irabazi ahal izan zuten.

Jubenilak, lehen faseko buru

Jubenil mailako taldeak, aldiz, ez zuten jardunaldirik izan. Hilaren 11n jokatu zuen aurretiko faseko azken neurketa eta 3-0 irabazi zion Hernaniri.

Talde urdin beltzak ez du norgehiagokarik galdu txapelketa horretan eta horri esker, sailkapeneko buru amaitu du bere multzoko lehia.

**%20eko
deskontua
betaurreko
graduatuetan**



IRIGOYEN

OPTIKA

Gabon hauetan, oparitu osasuna!

2023 zoriontsua opa dizuegu!



Largoenea 1, Lasarte-Oria - Tel. 943-37 10 47

Bideo TIEN 21 Lagunak

Finantziazioa neurria

Garraio zerbitzua

Erabilitako gailuen jasotzea

Aholkularitza espezializatua

Preziorik onena

Etxekotresna elektrikoetan adituak

ZERBITZU TEKNIKO PROPIOA

Zatoz ezagutzera gure

GABONETAKO

eshaintza bereziak!

Donostia etorbidea, 2 · LASARTE-ORIA | Tel: 943-37 31 34 | www.bideolagunak.com

Buruntzaldea IKTko kideak, markak ontzen

Liga desberdinetako jardunaldiari aurre egin diote Buruntzaldea IKTko igerilariek. Oviedon, Hernanin eta Ordizian izan dira lehiak igeriketa taldeko kideak eta marka ugari ondu dituzte. Zudairek gainera Munduko txapelketarako gutxieneko berria lortu du

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko kideek hiru hitzorduri aurre egin zieten hilaren 17 eta 18an. Igerilari guztiek maila oso txukuna erakutsi zuten.

Nahia Zudairek Igeriketa egokitutako AXA Ligako azken jardunaldia –Mareastur Nazioarteko Opena– jokatu zuen Oviedon. Igerilari gazteak Munduko Txapelketarako gutxieneko berri bat lortu zuen 400 m. libre proban, 05.09,98 eginez.

Hiru probatan egin zuen igeri zubietarrak –estilo libreko 200 m. eta 400 m. probak eta 200 m. lau estiloak– eta hiruetan izan zen podiumeko gorenean.

Ez zen asteburuko lehiaketa bakarria izan. Hilaren 17an, igeriketa taldeko helduenek Neguko Ligako 4. jardunaldia jokatu zuten Hernanin; alebinek ere euren ligako hitzordua izan zuten.

Hernanin 11 taldekide izan ziren lehiak eta horietatik hamarrek euren markak ondo zituzten; guztira 20 marka pertsonal berritu zituzten.

Igeriketa taldeko arduradunek kide guztiak lan txukuna egiten ari direla adierazi dute: "Ja denek hobetu dutela haien markaren bat; eta ez bada hala izan, haien




Zudaire, podiumean. FEDEMA

denbora onenetatik oso gertu geratu dira".

Bestalde, Ordizian alebin mailako bost kideak parte hartu zuten euren ligako saioan. Oinarrizko probak 200 m. bizkar eta 100 m. tximeleta izan ziren adin guztietarako. Mutilek gainera estilo libreko 4x100 m. erreleboa ere izan zuten.

Igerilari taldeko arduradunek jakitera eman dutenez, igerilariak "oso gogotsu" aritu ziren eta "maila ona" erakutsi zuten; bizkar zein tximeleta estiloei beldur gabe egin zieten aurre. Erreleboan ere "lan ona" egin zuten.

Gazteek egindako marken artean, gainera, Iñaki Garciak 200 m. bizkar proban lortutako 02.27,65 nabarmendu dute kirol taldeko prestatzaileek, taldeko 13 urteko errekor berria baita.



BURUNTZALDEA IKT

Kudeaketa Aurreratuaren A diploma

Buruntzaldea IKTk igerilekueetatik kanpo ere badu berririk. Hilaren 14an, Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Sariak banatu zituzten Donostiako Kursaallean. Sariez gain, 38 erakundeek Kudeaketa Aurreratuaren Diploma jaso zuten; horien artean, Buruntzaldea Igeriketa eta Kirol Taldea izan zen. Borja Apeztegia arduradunak jaso zuen agiria. Brontzezko kalitate ziurtagiria lortzeko bidean aurrerapausoa eman du kirol taldeak.

Eguzki Arkupek, erronka zaila urteari amaiera emateko

Sailkapen buru den Egintzari aurre egin dio talde lasarteoriatarrek eta aurkaria 1-6 nagusitu da

Txintxarri

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak partida zaila zuen hilaren 16an, Maialen Chourraut kiroldegian. Egun sailkapeneko buru dagoen Egintza izan zuen aurrez aurre Josu Lopezen taldeak.

Egintzak ongi baliatu zituen etxeko taldearen hutsak markagailuan gailentzeko. Defentsa eta ate azpian ere lan ederra egin zuen aurkariak eta Eguzkiren erasoak zapuztu zituen behin eta berriro. Ahaleginak ahalegin, 1-6 galdu zuen etxeko taldeak.



Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeko jokalaria, erasoan. TXINTXARRI

Kanporatua

Hilaren 9an ere, Josu Lopezen jokariak ez zuten zorterik izan eta Kopatik kanpo geratu ziren.

Lehiaketako final laurdenetan Herrikide izan zuen aurrez aurre Tolosako Eskolapioak ikastetxean. Nahiz eta atezainik

gabe joan partida jokatzeraz, Lasarte-Oriako taldeak estuasun ugari sortu zizkien tolosarrei.

Etxeko taldeak egin zuen aurrera 6-3 irabazi ostean. Hitzorduz betetako abendua eta gero, Josu Lopezen taldeak bi asteko etena izango du.

LOTMEK, atsedunik ez

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko kideek bi hitzordu izan zituzten hilaren 18an. Kirol elkarteko Sergio Ramirez (01.16.36) eta Xabi Carcedok (01.23.48) Gasteizko Maratoi erdian parte hartu zuten. Eta urtero LOTMEK egin ohi duen modura, Txindokira irteera egin zuen. Kide eta lagun talde polita bildu zen eta giro ederrean, goiz pasa egin zuten.



LOTME

2 Mo 229€
erreflexuen aurkako
betaurreko
progresiboak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua

www.multioplicas.com

Banako berdinketa, Kadete I. mailako derbian

Urteari amaiera emateko, Kadete I. mailako neurketa berezia jokatu dute hilaren 18an, Ostadar B eta Texas Lasartearraren arteko derbia. Berdinketarekin amaitu da buruz burukoa. Maila bereko Ostadar C taldeak, aldiz, garaipena erdietsi du

Txintxarri

Kadete I. mailako derbiarekin amaitu dute urtea Ostadar SKT B eta Texas Lasartearra FC taldeek.

Hilaren 18ko bazkalorduan jokatu zen arren, hainbat zaletu joan ziren Michelin kirol gunera herriko taldeen buruz burukoaz gozatzeraz.

Bi taldeak gogoz atera ziren zelaira eta ederki borrokatu zuten garaipenaren bila. Alabaina, banako berdinketarekin amaitu zen neurketa.

Era honetara, Ostadarrek 5. multzoko hirugarren postuan amaitu du urtea bigarrenarekin puntuetara berdinduta, eta Texas



Texas Lasartearrako jokalaria baloiarekin ihesi egin nahian. TXINTXARRI

Lasartearra, aldiz, bosgarren da.

Maila bereko Santo Tomas Lizeoa B eta Ostadar SKT Cren arteko lehia ere izan zen Herreran, hilaren 17an.

Partida borrokatua izan zen (amaiera aldera batez ere) eta urdin beltzak 2-3 gailendu ziren. 4. multzoko sailkapenean seigarren postuan dago taldea.

Babesle beste urte betez

Ges Aseguruak-ek Ostadar SKTrekin duen hitzarmena berritu du. 2006-2007 denboralditik bidelagun izan du kirol elkarteak aseguru etxea.

Ostadarreko ordezkariak pozarren agertu dira akordio berritzearekin, "Ges Aseguruak eskaintzen digun laguntza ezinbestekoa da. Gesek, gazteen taldeko babeslea izateaz gain, Ostadarrek burutu nahi duen kirol egitasmoari laguntzen dio. Modu batera edo bestera, herriko hainbat enpresa eta merkatari ari zaizkigu laguntzen. Hauei ere eskerrak eman behar dizkiegu gure egitasmoan sinesteagatik eta urtetik urtera gurekin jarraitzeagatik".




Euskadiren hamaikakoa.

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA

Euskadik Txile garaitu du

Euskal Selektzioak Txileren aurka jokatu zuen hilaren 20an, Gasteizko Mendizorrotza zelaietan eta 3-0 gailendu zen. Bi herritarrek parte hartu zuten neurketan. Real Sociedad taldeko Iraia Iparragirre herritarra hasierako hamaikakoan izan zen eta bigarren zatian utzi zuen lehia. Osasunako kide den Irati Urruzola, aldiz, bigarren zatian atera zen zelaira.



2023 ZORIONTSUA
opa dizuegu!



ILLARRETA

ITURGINTZA ETA IGELTSEBITZA

BULEGOA

Geltoki kalea 14 - Lasarte-Oria
Tel. 943-36 31 47 eta 943-36 17 52

info@illarreta.com

TAILERRA

Oialume Bidea, 24 - Astigarraga
Tel. 943-33 17 54

- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emailea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak



- Igeltseritza orokorra
- Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen koordinazioa
- Arreta pertsonalizatua

Pantailan agertuko diren izarrek are distira gehiago egin dezaten lan egin dute

Pantaila handiko izar artean aritu dira lanean zenbait lasarteoriatar. Moriarti Produzioak-ek berriki amaitu ditu 'Balenciaga' telesailaren ekoizpen eta grabazio lanak, eta horietan parte hartu duten herritarrekin hitz egin du TXINTXARRI aldizkariak

Maddi Zaldua

Baten faltan, bost. Hori izan da Moriarti Proiektzioak-en *Balenciaga* telesailaren ekoizpen lanetan aritu diren lasarteoriatarren kopurua. Ione Artola jostun aritu da eta Jokin Ayerregaray, berriz, jantzitegian. Ane Arteagak, errejidore lanak egin ditu, eta talde berean aritu

da Ander Armendariz arotza ere, atrezzoetako dekoratuak prestatzen. David Heras ere gehitu da herritar talde horretan; efektu bereziekin aritu da lanean, eta horiengandik jakin ahal izan dugu seigarren herritar bat ere aritu behar zela: Ioritz Apaolaza. Zoritzarrez, ordea, moto istripu batean hil zen iragan martxoan;

gogora ekarri nahi izan dute elkarrizketatuek.

Bi hilabete pasatxo igaro dira telesailaren grabaketa lanak amaitu zituztenetik, eta oraindik lan hori noiz pantailaratuko duten jakin ezin dugun arren, protagonista lasarteoriatar horietako batzuekin hitz egin du TXINTXARRI aldizkariak: Artolarekin,

haren bizitzaren eta sorkuntza lanaren berri emango du arestian izendatutako ekoiztetxearen telesailak. Sei kapituluz osatuta dago, eta Espainiako Gerra Zibiletik hasi, eta 70eko hamarkadaren hasierara bitartean gertatutakoak erakutsiko ditu, jostun eta arrantzale seme izateari aurre egitera ausartu zen gizon baten istorioa kontatuz.

Detalle gutxi eman daitezke oraindik orain, baina jakina da, adibidez Alberto San Juan aktoreak gorpuztuko duela *Balenciaga*, eta berarekin batera arituko dira beste hainbat eta hainbat zinema izar gehiago ere. Aktoreek duten berezko distira bazter utzi gabe, diz-diz gehiago egin dezaten lan egin dute ekoizpen taldeko langile guztiek, horien artean lasarteoriatarrek. Zehazki zein lanetan aritu diren, eta zer nolako esperientziak bizitu dituzten kontatu dute; honako testigantzak jaso ditugu.

Arteagarekin eta Ayerregararekin. Aukera hori baliatu du zein lanetan aritu diren galdetu, hori bildu eta horren berri emateko.

Beste hainbat gauzen artean, kontatu dute "ederra" izan dela "hainbeste" herritarrek bat egitea proiektu berean, eta batzuek elkar ezagutzen bazuten ere, beste batzuek ezetz. Horretarako ere balio izan diela esperientziak, eta harreman politak eraiki dituztela.

Euskal moda diseinatzaileaz

Getariarra zen Cristobal Balenciaga moda sortzailea, eta

"Inoiz imajinatu ez nuen opari ederra izan da telesailean lan egitea; betirako eramango dudana bizi esperientzia"

Balenciaga telesaileko aktore eta figuranteen jantziak josten aritu da Ione Artola (Lasarte-Oria, 1963) herritarra. Iratxe Estandia jostun donostiarren eskutik jaso zuen bertan parte hartzeko lehen proposamena -2019. urtean ezagutu zuten elkar, Woody Allenen film grabazioan-. Estandiak, Balenciagako lanetan

aritzeko eskaintzarekin batera, beste bat ere jaso zuen, eta bietan aritu ezinik, *Balenciaga* ez besteari eustea erabaki zuelako sortu zitzaion Artolari aukera. "Pozarren" jaso zuen eskaintza, eta "zalantzarik gabe" onartu. Handik gutxira, produktorako dei bat jaso zuen, eskaintza bera eginez, eta orduan ere "baiezko

borobila" eman zuela ekarri du gogora.

Aukera hori "berarentzako" zela pentsatu zuen hasieratik. Kontatu du AEG ikastetxean egin zituela goi mailako jostuntza ikasketak, eta orduan, *Balenciaga* ikasteaz gain, moda sortzailearen gaineko lan bat egitea egokitu zitzaioela bere taldeari. Gailendu du miresten duen jostuna dela *Balenciaga*. Aktore eta figuraziokoan arropaz betetako zintzilarioetako jantziak josi eta josi aritu da, egunero zortzi orduz. Orotara, bost hilabeteko lana izan da; maiatzaren 16an hasi eta urriaren 16an amaitu baitziren bere eginbeharrak.

Balenciaga jantzi "ikusgarri bezain ederrak" josten zituela nabarmendu du, eta bereizgarri gisa, bolumen asko erabiltzen zituela. Horren berri jaso ahal izango dute ikus-entzuleek telesailearen bitartez. Gaur-gaurkoz ezin du informazio gehiegirik aditzera eman, baina azaldu du, Getariako jostunaren bizitzaren berri emango duela; haurra zenetik zahartzarora bitarte, hortaz, hamarkada ezberdinetan bidaiatzeko aukera izango dutela ikusleek. Hori hala izanik, garai ezberdinetako jantziak ikusi eta ezagutzeko aukera ere eskainiko du telesaileak:



"Hamarkada bakoitzeko janzkerak ezberdinak ziren". Aktoreak jantzeko Bina Daigeler eta Pepo Ruiz diseinatzaileek egin duten lana goraiatu du.



Eguberri on eta 2023 zoriontsua izan dezazuela!!

Hipodromo Etorbidea, 2 • Tel. 943-36 13 79 / 610 44 15 44 • LASARTE-ORIA

ETXEZARRETA HARATEGIA

Bertako okela • Urdaitegia • Eramateko janaria



Egin gabonetarako eskaera!

"Espazio errealean erreplikak egin behar izan ditugu; exigentzia handiko lana izan da"



Urte mordo daramatza Ane Arteagak (Lasarte-Oria, 1975) errejidore lanetan. 1998. urtean lan egin zuen lehenez film luze batean, eta orduz geroztik, etengabe ari da zeregin horretan. Filmen gidoi eta eszenetako dekoratuak prestatzen ditu, eta hori bera izan da Balenciaga telesailen bere eginbeharra. Mikel Serranorekin –Moriarti Produksioak ekoiztetxearentzat arte zuzendari gisa lan egin ohi du–, eta hortik etorri zaio bertan aritzeko aukera. Nabarmendu du aipatu ekoiztetxeko zinema zuzendari Jon Garaño, Aitor Arregi eta Jose Mari Goenagaren lana zelako onartu zuela bertan aritzea, "asko" gustatzen baitzaio euren lana. Aitortu du ez dela "baterer" moda aditua, eta Balenciagaz ere ezer gutxi zekiela, eta aukera bikaina eskaini diola telesailen aritzeak Getariako moda diseinatzaileaz ikasteko.

Gozatu du esperientziak, ezinbestean, baina aitortu du "gogorra" ere egin zaiola: "Telesailen grabazioak asko luzatzen dira denboran, eta neketsua egin zait". Jakinarazi du zailtasun maila handiko hainbat lan egin behar izan dituela, sortu beharreko dekoratuak ez baitituzte

asmatu. Besteak beste, Balenciagak lanerako erabiltzen zituen hainbat espazioren erreplikak egin behar izan dituzte hutsetik, eta errealitate bat kopiatzea, hutsetik asmatzea baino "askozaz ere zailagoa" dela nabarmendu du: "Horiek izango dira kapituluz kapitulu errepikatuko diren dekoratu garrantzitsuenak, eta ahalik eta berdinen sortzea izan da gure lana". Detalle handiegirik eman ezinik, aurreratu du diseinatzailearen Parisko eta Madrilgo 'maison'-ak ikusi ahal izango dituela ikusleak telesailen, besteak beste.

Atrezzo guztiak sortzeko materiala nola eskuratzen duten galdetuta, kontatu du asko erosi egin behar izaten duten arren, arreta berezia jartzen diotela materiala alokairuan hartzeari, grabazioa amaitzean erabiltako guztia bertan geratzen baita. Aurreratu du baita ere, jantziekin bezala, dekoratuekin ere hamarkada aldaketak nabaritu ahal izango dituztela ikusleek: "Lan handia egin dugu hori ere erakusteko".

"Euskal erreferentziak ere txertatu zituen modan; arrantzaleen jantziak, adibidez"



Jantzitegian aritu da lanean Jokin Ayerregaray (Lasarte-Oria, 1991), batez ere figurazioan aritu diren jantziekin lanean. Esperientzia "oso polita" izan dela nabarmendu du, nahiz eta aitortu duen "inplikazio eta esfortzu handia" eskatu diola: "Lanordu asko izan dira, baina asko ikasi dut; Balenciaga ere gertuagotik ezagutzeko aukera eskaini dit ekoizpen lan horretan aritzeak", gaineratu du. "Profesional handiez inguratuta" aritu da, eta euren gaitasunak ahal izan duen guztia ikasteko ere baliatu du esperientzia.

Aurreratu du modaren munduko "maisu" bati egindako omenaldia izango dela telesaila, eta estetikoki "oso lan landua" ikusiko dutela ikusleek.

Getariako moda diseinatzaileaz kontatu du "esparru horretan prodijio handienetako bat" izan zela, euskal kulturari "balioetsi" den sortzailea. Halere, azpimarratu du gizarteari "ezezaguna" zaiola: "Jende askok badaki Balenciaga jantzi etxe famatu bat dela, baina inork gutxi daki moda munduari egin dion

ekarpena. Oihal mota berriak sortu zituen, baita patroigintzakoak ere, eta euskal erreferenteak ere txertatu zituen moda munduan, euskal arrantzaleen garaiko jantziak, adibidez". Ayerregarayk uste du Frantzian "estima handiagoa" zaiola, edo "begirune handiagoa" diotela.

Kontatu du Balenciagak kalitate handiko eta detalle askoko jantziak jantzen zituela, eta horren janzkera horren berri ere emango duela telesailak, garaian garaikoa erakutsiz. Artolak eta Arteagak esan duten bezala, diseinatzailea bizi izan zen hamarkada ezberdinek garrantzia baitute proiektuaren, eta Ayerregarayk ere bat egin du horrekin: "Garai bakoitzak badu bere zapata mota, baita barruko arropa, jaken edo gonon luzera jakin bat, adibidez. Horiek ondo erabiltzeak ematen dio errealismoa edozein ekoizpeni. Hori ere zaintzen ez bada, sinesgarritasuna galtzen du produkzio lanak".

LUIS CAR

autobusak

2023 zoriontsua opa dizuegu!

- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak

"Burgosen ikastea aukera paregabera bihurtu da"

NAHIKARI ZALDUA VEGA DANTZA KLASIKOKO IKASLEA

Burgosko Ana Laguna dantza eskola profesionalean ari da azken kurtsoa ikasten. 2023ko martxoan Espainiako Dantza Konpainia Nazionalean egonaldi bat egingo du

Nerea Eizagirre

Dantza klasikoa edo balletaren harra txikitan sartu zitzaion Nahikari Zaldúa Vega (Lasarte-Oria, 2005) gazteari. 15 urterekin bere ametsari jarraiki Burgosko Ana Laguna dantza eskola profesionaleko proba egin eta onartua izan zen. Geroztik Burgosen bizi da eta ikasketak eta dantza uztartzen ditu. Uztaillean Valencia Endanza ikastaroan saria jaso zuen: Espainiako Dantza Konpainia Nazionalean egonaldia.

Noiz hasi zinen balleta egiten? Eta zergatik?

Bost urterekin igeriketa ikastaroez gain, balleta egitea zen gure eskolaz kanpoko aukera. Beraz, ikastolako lagun batzuekin izena ematea erabaki nuen. Nire gurasoei psikomotrizitate eta oreka ona garatzeko aukera bat zela iruditu zitzaion. Gainera, lagunekin egoteko aukera ona zen.

Irakasle batek irakatsi zigun baletarekiko grina, diziplinaz, baina egunero gozatzen. Ia talde berean egon ginen lagun guztiak zortzi urtez.

Goizero, esnatzean, gehien maite nuena iristeko gogoz nintzen, ballet ordua.

2020ean Burgosko Ana Laguna dantza eskola profesionalean egin zenuen proba. Zergatik eman zenuen pauso hori?

Erabakia hartzea ez zen batere zaila izan. Oso txikia nintzenetik

beti nahi izan nuen ballet dantzari profesionala bilakatzea, gehien gustatzen zaidana ahalik eta ondoen ikasi ahal izateko.

Gurasoek Burgosera joateko aukera aipatu zidaten, eta nire ikaskuntza serioago jarraitzeko aukera aurkeztu zidatenez, ez nuen zalantzarik izan hori zela nire abagunea. Gainera, beti gustatzen zait esperientzia berriak bizitzea.

Hau, zalantzarik gabe, aukera paregabera bihurtu da.

Donostia inguruan ez al dago aukerarik balletan aurrera egiteko?

Donostia inguruan aurki daitekeen gauzarik onena akademia pribatuak dira, eta horiek asko ikasten lagun diezazukete inolako zalantzarik gabe, baina kontserbatorioak dantza prestakuntza osatuagoa izateko aukera ematen dizu.

Eta triste da goi mailako ikasketak egiteko eskolarik hurbilena Burgoskoa izatea, asko baikara egoera berean gaudenak.

Eta plaza lortu zenuen. Geroztik Burgosen bizi zara. Aldaketa handia izan zen? Gogorra izan zen egoera berrira moldatzea?

"TRISTEA DA GOI MAILAKO IKASKETAK EGITEKO ESKOLARIK HURBILENA BURGOSKOA IZATEA"

Aldaketa handia izan zen, 15 urterekin inoiz bizi izan ez nituen gauzei aurre egin behar izan nien, eta familiarengandik eta betiko lagunengandik urrun nintzen. Gainera, hizkuntza aldaketa oso nabarmena izan zen ikasketei dagokienez.

Baina ez zen oso zaila izan ohitzea ere, hiru urte hauetan lagun onenarekin izan naizelako, Donostiakoa bera ere, eta oso garrantzitsua izan da urte hauetan guztietan. Banekien ez nengoela bakarrik behintzat.

Une zail guztiak elkarrekin igaro ditugu, eta une askotan lasaigarria da jakitea norbait daukazula ondoan egun osoan, egoera, erronka, arazo eta une dibertigarri berberak bizitzen. Gainera, Burgosen oso harrera ona egin zidaten, eta lagun zirkulua handia da orain.

Egunero izaten dituzu entseguak? Nola uztartzen dituzu ikasketak eta balleta?

Astean zehar egunero izaten ditugu entseguak eta kontserbatorioko guztia batuta astean 30 ordu inguru dira, hau da, egunean 6 ordu inguru.

Goizeko 08:00-09:00ak aldera hasi (egunaren arabera) eta 14:15ak aldera amaitzen dugu, eta arratsaldean 16:30etik 22:15ak arte institutua daukagu.

Askotan luzea eta gogorra egiten da, egunaren amaieran oso nekatuta nago eta 23:00etan etxera iristen naiz. Eta egun



Nahikari Zaldúa 'Arabesque' pausoa egiten. M. VEGA



guztiaren ondoren 23:30etik 01:00etara ikasten dut.

Nekeza eta gogorra da, baina, azkenean, garrantzitsuena antolatzen jakitea da, diziplina eta iraunkortasun handia izatea, eta egunean zehar une guztiak ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatzea, ahal den guztia aurreratzeko, hala nola autobuseko bidaiak, atsedanak, asteburuak, eta abar.

Koreografo handiekin lan egiteko aukera ere ematen dizu Ana Laguna eskolan aritzeak. Zer moduzkoa izaten ari da esperientzia?

Hiruhileko bakoitzean koreografo ezberdinekin lan egiteko aukera izaten dugu. Kontserbatorio hau da aukera hori ematen duen bakarra. Zalantzarik gabe, benetako konpainietan egiten den bezala, dantzatzen laguntzen dizun zerbait da, eta profesional izateko urratsa nola egin irakasten dizute.

Gainera, tailer horiekin askoz gehiago trebatzen hasten zara, eta estilo eta teknika berriak esperimendatzen dantzatzeko orduan. Esperientzia oso ona eta aberasgarria da. Lan mota oso



Nahikari Zaldia gaztea Burgosen ari da dantza klasikoa ikasten. M. VEGA

ezberdina da koreografoaren arabera, bakoitzak bere esentzia baitu; hori da lan honen alderdirik politena. Nahiz eta beti ez izan gehien gustatzen zaidan dantza estiloa edo mugimendu mota, uste dut garrantzitsuena gehien eman dizunarekin geratzea dela.

Batzuk izendatzearen, aurten Iratxe Ansa-2020ko Dantza Sari Nazionala eta Max 2021 saria Emakumezko Dantza Interprete Onenari-, Mayumi Sakamoto

-Nacho Duato zuzendari artistikoaren balleten koordinatzailea eta Mikhailovsky Ballet-aren zuzendaria- eta abarrekin lan egin dut.

Duela gutxi, sari bat eman dizute. Zertan datza? Zer suposatzen du horrek zuretzat? Aurrera pauso bat da zure ibilbidean?

Uztailean Valencia Endanza nazioarteko ikastarora joan nintzen eta sari bat eman zidaten: Madrilgo Dantza

Konpainia Nazionalean egondaldia egitea. Horri esker, martxoan profesionalekin egindako lanaz gozatu eta bertatik bertara ikusi ahal izango dut benetako konpainia batean egunerokoa zer den eta nola lan egiten duten.

Askok eskertzen dudana saria da, niretzat aukera paregabea dela uste dut, urte hauetan guztietan egin dudana ahaletzen eta lanaren ondorioa delako.

Seigarren mailan zaude eta hurrengo ikasturteari begira, zer asmo duzu? Balleta zure ogibidea izatea gustatuko litzaizuke?

Hurrengora begira, aukera asko daude oraindik, horietako bat unibertsitateko karrera bat ikastea da, baina, zalantzarik gabe, gehien gustatuko litzaizuke konpainia batean dantzatzea; oso zaila eta sakrifikatua den arren.

Otsailetik aurrera konpainietzako audioak egingo ditut eta, aldi berean, alderdi akademikoan lanean jarraituko dut USE ona egiteko. Egunez egun gozatuko dut, hori baita garrantzitsuena.

Ongi igaro Eguberriak!!

AZPEITIA

Blas de Lezo, 1
20160 LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 18 70
Fax: 943-36 21 79
mueblesazpeitia@gmail.com
www.mueblesazpeitia.com

Lara Velasco

627 74 20 56

FISIOTERAPEUTA
OSTEOPATIA
KIROL MASAJEA

SURIA
Zentroa
Jaizkibel plaza, 7
LASARTE-ORIA

BIYAK BAT

2023 zoriontsua opa dizuegu!

Kale Nagusia, 40
Tel: 943-36 39 64
LASARTE-ORIA

GIZONEZKO ILEAPAINDEGIA

Ana

PELUQUERIA DE CABALLEROS

✓ Higienea bermatua

HITZORDUA HARTU!
943-84 19 72 | 672 71 72 06

Gabon zoriontsuak!

Kale Nagusia, 2 Lasarte-Oria

"Afizio serioa da hau: ordu asko sartu ditut"

JOKIN GOENAGA MINER MUSIKARIA

'Nere musikak' liburuia kaleratu berri du lasarteoriatarrek. Akordeoitik hasi eta teklatu elektronikora, musika bidaia bat proposatu du, sakelako telefono eta entzungailuekin egitekoa

Iñigo Gonzalez Sarobe

Duela 20-22 urtetik sortutako ia guztia bildu du Jokin Goenaga Miner herritarrak, udalarekin elkarlanean argitaratu berri duen *Nere musikak* liburuan: ehun abesti baino gehiago, bederlatzi kapitulutan banatuta. Partitura tradizionalen ordez, QR kodeak erabili ditu, sakelako telefonoarekin eskaneatu, entzungailuak konektatu eta abenturari ekiteko. Azalean bertan topatuko dute irakurleek itxura bitxiko aurreneko laukitxoak, musikariaren YouTube kanalera eramango dituen, horretan ere sartuta baitago lasarteoriatarra. Imajinazioa baino, orduak falta zaizkio esku artean duen guztia aurrera eramateko, baina gogotsu ari da.

Noiz bururatu zitzaizun sortutakoa liburu batean biltzea?

8 urte nituenetik jotzen dut akordeoia. Nire sormen lanaren mugarrria duela 20-22 bat urte ezarri nuen, *I love the new accordion* koadernoa egin nuenean. Horren ostean konposatzen jarraitu dut, ez soilik instrumentu hori jotzen dutenentzat, baita ere piano jotzaileentzat, txarangetan dabiltzanentzat, soka instrumentuak eta soinu kaxa ere probatu ditut... Urte batzuen ostean, egin nuen lan guztiak euskarri batean jasotzea bururatu



Formatu "berritzailea" duen liburu bat prestatu du lasarteoriatarrek. TXINTXARRI

zitzaidan, baina ez era tradizional batean, formatu berritzaile batean baizik. Hala uste dut nik.

Zein da formatu hori?

Argitu nahi dut ez naizela honetatik bizi. Profesionala ez naizenez, diskoak-eta ez ditut grabatu, sortzen ditudan abestiak YouTubean publikatzen ditut eta bideoak sortu, nahiz eta ez naizen horretan aditua. Garrantzi gehien duena musika da, dudarik gabe.

Bururatu zitzaidan aplikazio horretara igotako guztia QR kodeen bidez eramatea liburura, eta euskaraz zein gaztelaniaz

dauden testu txiki batzuekin laguntzea, sarrera moduan. *Smartphone*-arekin eskaneatu eta entzungailuekin kantaz kanta joateko planteamendua egin dut. **Ehun abesti baino gehiago, bederlatzi kapitulutan. Lan itzela.**

Afizioz egiten dut hau guztia, ez ofizioz. Hori esanda, afizio serioa da hau: ordu asko sartu ditut, ez dakit zenbat, egia esan. Etxeko zereginekin guztiok laguntzen dugu, baina denbora asko pasatzen dut ordenagailuaren aurrean, sortzen, lanean. Telebistari begira gutxitan ikusten naute (barreak).

Eratu dituzun atalen artean, ba al duzu kuttunen bat?

Lehen hiruak: akordeoiarentzat zein pianoarentzat sortutako piezak eta *Lasarteko kantak* izeneko kapitulua, herriko elkarte, jai eta auzoei eskainitako kantuak jasotzen dituen, urtero danborradan jotzen dugun *Lasarteko martxa*, adibidez. Beste seiak ere gustuko ditut, noski.

Abestiak konposatzea, bideoak egitea, QR kodeak sortzea, testuak idaztea... Prozesu asko daude 'Nere musikak' liburuaren atzean. Zer izan da zailena?

Konplikatuena txararentzako partiturak egitea izan dela esango nuke, talde horietan erabiltzen dituzten instrumentuak ez ditudalako akordeoia bezain ongi ezagutzen. Bateratu egin behar dira denak, koordinatu, eta hori ez da nire espezialitatea. Hala ere, esango nuke ez dudala lan txarra egin, abestietako batzuk jotzen dituztelako.

Liburuia ireki, eta hitzaurrea. Horrela amaitzen duzu: "Mila esker nire gurasoentzat. Beraiek sartu ninduten mundu musikal honetan".

Aitak akordeoia maite zuen. 'Akordeoi bat izan banu txikitari, munduko txapelduna izango nintzateke', esaten zuen. Gurasoek sartu ninduten mundu musikal honetan. Ez ginen aberatsak baina ahalegin handia egin zuten: ni akademia pribatu batera eraman, instrumentuak erosi... Honaino iritsi naiz hasieratik gustatu zitzaidalako, baina haiei esker ekin nion.

Gogoan duzu esku artean izan zenuen lehen akordeoia?

Bai, noski! Etxean daukat, eta ongi funtzionatzen du. Paolo Soprani bat da, italiarra, 80 baxukoa. Pandemiaren aurretik, alaba eta bere lagunekin atera nintzen jotzera behin.

Zergatik gustatzen zaizu horrenbeste instrumentu hori?

Akordeoia instrumentu oso espresiboa da, hauspoa duelako. Jotzen duzun nota bakoitzari indar gehiago edo gutxiago eman diezaiokezu, zuk kontrolatzen duzu; birika bat bezalakoa da. Zenbat eta lotuago egon akordeoira, orduan eta errazagoa da maneiatzeko, iristen zara sentitzera bat zaretela instrumentua eta zu. Oso berezia da hori.

Liburuia argitaratuta, zer duzu orain esku artean?

Kantu herrikoiaren bilduma bat egiten ari naiz, eta azkenaldian emanaldiak egiten ditut adinekoen egoitzetan, bereziak horiek ere, hiru gauzatan oinarrituta: zuzeneko musika, akordeoia eta entzun nahi dutena entzuleek erabakitzea. 'Jokin Goenaga naiz eta ez dakit zer joko dudan gaur', aipatzen diet: 'Zuek esan behar didazue'. Batek, Realekoa dela eta ereserkia entzun nahi duela; beste batek, bals bat; gazte garaietako erromerietako kantuak... Oso esperientzia politak izaten ari dira. Eguneroko errutinatik ateratzen dira, dantzan hasi eta irrintziak botatzen dituzte.



Eskaneatu ezazu QR kode hau 'Nere musikak' lana digitalki irakurtzeko.

Elkarrizketa, osorik,
www.txintxarri.eus atarian

Ondo pasa eguberrietan!

M

LASARTE-ORIA

ZUBI

Geltoki Kalea 21 LASARTE-ORIA

muebleszubi@hotmail.com

Tel.: 943-36 24 67





Zorionak eta urte berri on!

**Benetan gertu
Benetako arreta
Benetan profesionala**

Horrelakoak dira Lasarte-Oriako Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzuak.

benetako bizitza



Lasarte-Oriaren aldaketa, datutan

Zenbait aldagai demografikoren kopuruak bilduta, herriaren biztanleriak azken hogeitun urteetan izandako bilakaeraren erradiografia da hau. Saretzen egitamoaren barruan, horiei guztiei testuingurua marrazten ahaleginduko da gerora TXINTXARRI

Maitane Aldanondo

Gizartea etengabeko bilakaeran murgilduta dago. Aldaketa demografikoak egunez egun gertatzen dira, baina haiek igartzeko urteak, hamarkadak edo mendeak behar izaten dira. Zergatiak azaltzeko anbiziorik gabe, artikulua honetan azken bi hamarkadetan (2001-2021) Lasarte-Oriako biztanleriak izandako bilakaeraren zenbait zertzelada bildu ditu TXINTXARRI-K, Eustatek bildutako datuetan oinarrituta. Joera gehienak, noski, ez dira udalerrira mugatzen, orokorrak dira, eta, oro har, inguruko herrietan, Gipuzkoan edota Hego Euskal Herrian ere antzeman daiteke haien eragina.

Aztertutako hogeitun urte horietan hazi egin da lasarteoriatarren kopurua. Zehazki, 17.099 izatetik 19.294 izatera pasatu dira, hau da, 2.195 (+%12,84) herritar gehitu ditu udalerrriak. Urte horietan guztietan, bitan bakarrik egin zuen behera zenbatekoak, 2002an eta 2015ean, zehazki, 36 eta hamaika lagun galduta, hurrenez hurren. Gorakada nagusiak, aldiz, 2007-2013 eta 2017-2021

urteen artean izan ziren; ia urte guztietan ehun biztanletik gora dauden kopuruak gehituz. Aipatutako lehen tartean, sei urtean 957 izan ziren gehitutako herritarrak; bigarrean, aldiz, 750, baina lau urtean.

Eskualdea ere gora

Buruntzaldeari begiratuta, sei udalerrietan joera antzekoa izan da. 2001ean zituzten biztanleak gehituta 64.083 lagun bizi ziren eskualdean; bi hamarkada geroago, 10.039 gehitu zaizkie eta 74.122 ziren 2021ean. %15,67ko igoera, beraz. Aldaketa esanguratsu eta nabarmena Astigarragarena izan da, ia bikoiztu egin baitu bere biztanleria: 3.582 herritar izatetik 7.056 izatera, %96,98 hazi da. Nahiz eta modu apalagoan izan, beste lau udalerrietan ere herritar kopurua handitu egin

**BI HAMARKADATAN
HERRIKO BIZTANLERIA
%12,84 HAZI DA,
17.099 IZATETIK
19.294 IZATERA**


da. Usurbilen %16,05 hazi da, 850 bizilagun gehiago baititu; Urnieta %13,58, 738 herrikide berri ditu. Hernanin 2.224 dira batutako bizilagunak, %12,11, eta Andoainen, 558, %3,90. Hego Euskal Herriaren batezbesteko hazkundea %8,3 da.

Emakume gehiago


Hego Euskal Herrian populazioaren gehiengoa emakumezkoa da, %51,26, eta pixka bat hazi da aztertutako epean (+%0,37). Gauza bera gertatu da herrian ere, neurri handixeagoan (+%0,50), nahiz eta sexu arteko banaketa parekoagoa izan. 2001ean emakumezkoak 8.630 (%50,48) ziren eta gizonezkoak 8.469 (%49,52). Bi hamarkada geroago, 9.836 (%50,98) eta 9.458 (%49,02) dira. Migranteei buruzko datuak ez daude sexuaren arabera banatuta, baina jaiotzei eta heriotzei erreparatuta, azalpenaren zati bat bertan topa daiteke: emakumezko gehiago jaiotzen dira eta gizonezko gehiago hil.

Urteotan 3.422 lasarteoriatar jaio dira: 1.726 (%50,44) neska,

Buruntzaldeko biztanleriaren bilakaera



Lasarte-Oriako jaiotza-heriotzak



Lasarte-Oriako migrazio mugimenduak



Eskualdeko eta herriko zenbait aldagairen bilakaera erakusten duten grafikoak. TXINTXARRI

Familia eta lagun lasarteoriatarrei, Eguberri onak opa dizkizuegu eta 2023. urtean jarrai dezagun ametsak elkarrekin betetzen.

URTE BERRI ON!



Jalgune

Beko kale bidea, 1 2. solairua • LASARTE-ORIA

Fernandez
ehunak

Eguberri eta 2023 zoriontsua opa dizuegu!

Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!

Kale Nagusia 2 - Tel. 943-36 16 07 - LASARTE-ORIA

1.696 (%49,56) mutil. Hil, berriz, 2.816, 1.522 gizonezko (%54,05) eta 1.294 emakumezko (%45,95). Emakumezkoak ia urtero azpitik daude eta kopuruak txikiagoak dira, batzuetan nabarmen. 2018 urtera arte, 2011 urtea da heriotzek jaiotzak gainditzen dituzten urte bakarra, eta aldea hiru lagunekoa besterik ez da. 2018 urtetik aurrera, ordea, jaiotzen direnak baino gehiago dira hildakoak; guztira, 123 pertsona. Ez dirudi pandemiak azaltzen duenik joera aldaketa, bi urte lehenago hasi baitzen, eta 2020an aldea -52 bada ere, 2019an -41 izan zen, eta iaz, -16.

Gero eta zaharrago

Datuen beharrik gabe ondoriozta daiteke zenbakiek ere argi erakusten dutena: gizartea zaharkitu egin da urteotan. 60 urtetik gorako kopuruak etengabe egin du gora, erdiko adin tarreak, gehienbat lan adineko jendea biltzen duenak, nabarmen behera egin duen bitartean. Aldiz, 20 urtez azpikoen kopuruak gutxika gora egin du. Lasarte-Oriako zenbakiei erreparatu gero, biztanleriaren

20 ETA 59 URTE ARTEKOEN KOPURUA %12 MURRIZTU DA, 60TIK GORAKOENA, BERRIZ, %10,4 HAZI

adin banaketaren bilakaera bat dator joera horiekin.

2001ean 60 urtetik gorakoak lasarteoriatarren %20,7 ziren; 2021ean, berriz, 10,4 puntu hazi ziren. Hau da, bosten bat ziren milurtekoaren hasieran eta hala jarraituz gero, heren bat izango dira mende laurdenera iristerako, %31,1 baitira. 20 urte artekoak ere gehiago dira, baina hauen igoera askoz apalagoa izan da: %15,6tik %17ra. Hortaz, 20-59 adin tartekoaren kopuruaren jaitsiera esanguratsua da: ia %12. Herritarren %63,7 izatetik %51,8 izatera pasatu dira.

Gizabanakoaren joan-etorria

Hogei urteotan, 15.807 pertsona etorri dira Lasarte-Oriara bizitzera, joan, aldiz, 13.287. Gizabanakoaren trukea, bereziki, erkidego barruko udalerririk artekoa

da, %63,78 eta %57,20; erkidego artekoa horren erdiaren azpitik dago, %27,21 eta %24,02. Atzerriko datuei erreparatuta, aldea esanguratsua da. Kanpora doazenak, emigrazioaren %9,01 besterik ez dira, immigranteen kasuan, ordea, %20,49. Hau da, EAE kanpotik antzeko kopuruan datoz Espainiako beste herri batetik edo beste herrialde batetik.

Mugimendu horien bolumena handiagoa izan da 2015-2020 bitartean, eta pisu handixeagoa izan dute azken lau urteetan. Aipagarria da, serieko kopuru altuenak, bi norabideetan, 2019 urtekoak direla, eta baxuenak, aldiz, 2021ekoak. Bi kasuetan, Lasarte-Oria uzten dutenek eta hona bizitzera datozenek, nagusiki, EAeko beste udalerririk bat dute jatorri edo helmuga. Iazko urtea da salbuespen bakarra. 307 etorkinetatik 148 beste erkidego batetik etorri ziren, 137 atzerritik, eta 22 erkidegoko beste leku batetik. Joan zirenak, berriz, 382 izan ziren. Horietako 29k inguru hurbilean topatu zuten bizitokia, 183k Espainiako beste gune batean, eta 170ek, atzerrian.

Saretzen egitasmoa



Lasarte-Oria, Buruntzako tontorretik ikusita. TXINTXARRI

Azaroaren amaieran, Eustat-ek eta Nastat-ek biztanleriari buruzko 2022ko datuak kaleratu zituzten. EITBK eta Tokikom-ek elkarlanean gaia herriz herri lantzeko kazetaritza proiektu bat landu dute: Saretzen proiektua. Zenbait aldagairen araberako 2001-2021 urte arteko datu demografikoak bildu dituzte eta bi taldeetako parte diren hedabideek baliatzeko prestatu.

Horietan oinarrituta, TXINTXARRI-k datuen aurkezpen soila den artikulu hau idatzi du, baina hasiera besterik ez izateko asmoz. Otsailaren 15ean Lasarte-Oria udalerririk gisa sortu zela 37 urte beteko dira, eta efemeride horren harira, zenbait eduki berezi sortuko ditu aldizkariak, bilakaera demografiko horren arrazoak, zergati edota ondorioei lotuta.



Eskanea ezazu QR kode hau Saretzen egitasmoari buruz sortu dugun kanal berezian barrena nabigatzeko.

650
USURBIL
bizirik

noava

LAN DEIALDIA - TURISMO DINAMIZATZAILEA

650 Usurbil Bizirik turismo eredu berrian dinamizatzailearen bila gabiltza.

Noava! K.E.-n lanaldi erdiko urtebeteko kontratua eskaintzen da (2 hilabeteko frogaldia).

Betebeharrak:

- Diplomatura edo gradu baten jabe izatea. Turismo, Kultura, komunikazio edo jarduera soziokulturarekin lotutakoak (erlazionatutako masterra edo postgradua ere onartuko dira) edo
- Beste diplomatura baten jabe izanik, prestakuntza osagarria edo esperientzia izatea kultura, ondarea eta turismo alorrean.
 - EGA edo baliokidea izatea.

Baloratuko dira:

- Harremanetarako eta komunikaziorako gaitasuna.
- Ekintzailea izatea eta proiektuak sortzeako gaitasuna izatea.
- Kanpoko hizkuntzak jakitea.
- Herrigintza esperientzia izatea.
- Turismo alorrean esperientzia izatea.
- Webguneak eta sare sozialeen kudeaketan ezagutza izatea.

Interesatuak bidali curriculumak elkartea@noava.eus helbidera 2023ko urtarrilak 9 baino lehen.

INFORMAZIO
GEHIAGO



Tradizioa josi dute, oraina janzteko

Fin aritu dira herritarrak jantzi tradizionalen ikastaroan

Urtero lez, eta urte sasoi honek eskatzen duen moduan, jantzi tradizionalen ikastaroan parte hartu dute herritarrek aurten ere. Ione Artola irakaslearen aholku eta jakintzari jarraiki, lan bikainak osatu dituzte. Bi hilabetez aritu dira josi eta josi, lan eta lan; berriki amaitu dute ikastaroa, hilaren 15ean.

Bederatzi lagunek osatu dute aurtengo taldea, irakasleak eta zortzi ikasleak. Azken horien artean, gainera, lau berriak izan dira. Denak ala denak "fin eta gogotsu" aritu direla nabarmendu du Artolak, eta gailendu, giroa ere "ona" izan dela. Josiz osatutako zein lan egin dituzten ere kontatu du: hainbat estilotako gona eta alkandorak, zapiak, gerruntzeak, galtzak, eta baita haurrentzako zenbait pieza ere, besteak beste. Galeria txiki honek ezin erakutsi ditzake sortutako lan guztiak, baina horiek denak zeinen dotoreak diren ikusi nahi duten herritarrek, TXINTXARRI aldizkariaren web atarian egin dezakete.

Bestalde, tarte hau baliatuko dugu urte berria hastearekin batera Ttakun Kultur Elkartek, Artolarekin elkarlanean martxan jarriko duen Titare ikastaroa iragartzeko. Oraindik hasiera datak itxi gabe dituzte arduradunek, baina zehaztu dutenez, izen emate epea urtarriko lehenengo astean egin beharko dute interesdunek. Bertan parte hartu nahi duen lasarteoriatarrik bada, jakin beza eskaintza hori ere badatorrela.



Aurtengo joskintza tailerreko ikasle batek egindako zapi eta gerruntzea. TXINTXARRI



Galtza eta alkandorak ere egin dituzte aurtengoan. TXINTXARRI



Irudi honetan aurtengo ikastaroan parte hartu duten ikasleak, Ione Artola irakaslea eurekin dutela; bederatzi lagun bildu dira orotara. TXINTXARRI



Gona eta amantal koloretsu bezain politak ere josi dituzte. TXINTXARRI

Eguberri on!



ELECTRICIDAD
ARREGUI



600 85 75 86
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)

Gabonetako eskaintzak ditugu! ZATOZ!

HAURRENTZAKO LANPARAK DIBERTIGARRIAK



Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21

sentitu
prestatu



eta ekin!

Lehiaketetako sarituak

Euskararen 10. Maratoialdiaren harira TXINTXARRI aldizkariak antolatutako zituen argazki eta galdera lehiaketako sariak banatu ditugu. Lehenean Eneritz Mendiluzeren argazkia saritu zuen epaimahaiak. Galdera lehiaketan, aldiz, hamar erantzun zuzen eman zituzten parte hartzaileen artean zozka egin eta Maddi Labaka izan da zortekoa. Biek Casa Humadako Txitxardin jatetxean bi pertsonentzako jatorduaz gozatuko dute. Zorionak eta on egin!!!



Errigoraren saskia Begoña Agirre bazkideak eskuratu du.



Ttakun KEren bazkideek ere opariak jaso dituzte

Ttakun Kultur Elkarateak abenduan bi zozka burutu ditu izena eman duten bazkideen artean. Batetik, Gabonetako bazkide sarian Errigoraren saski bat; eta bestetik, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Ez gara jaitsiko!* ipuin diskoko bi ale banatu ditu euskara elkarteak.

Gabonetako zozka bereziaren irabazlea Begoña Agirre bazkidea izan da.

Lasarte-Oriako pailazoan lan berriak, aldiz, Begoña Peñaren eta Rebeke Garzesen eskuetan daude dagoeneko.

Zorionak eta zuen opariez goza dezazuela!!!



Begoña Peña eta Rebeke Garzes izan dira abenduko bazkide zozketako irabazleak.

txitxardin

BRASA ETA TRADIZIOA

EGUBERRI HAUETAN OSPATU GUREKIN
ZURE ETXEAN EDO GURE JATETXEAN

GABONETAN ERE ZABALIK!
Asteazken egunero eta baita 25, 1 eta 6a ere


Casa Humada

Oria Etorbidea, 12 LASARTE-ORIA
943-04 62 97 | 662 06 66 79
info@casahumada.com




Joan-etorria

Horra trena: goian badoa, eta behean badator. Aurki itzazu bien artean dauden aldeak. Hamar dira guztira.



Bakoitzari berea


Pertsona hauek denek ekipajea galdu dute tren-geltokian. Eman bakoitzari berea.




Handienetik txikienera

Ordena itzazu tren-gidari kapelu hauek handienari 1 zenbakia, hurrenari 2 eta txikienerari 8 emanaz.

Sudokua




Trenari BULTZI ere esaten zitzaion lehen. Ba al zenekien? Osa ezazu sudokua, BULTZI hitza osatzen duten hizkiekin (B, U, L, T, Z eta I). Hizki bakoitzak behin agertu behar du lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Itzala

Ui... Trena galduko duela ematen du, baina zein da bere itzal zuzena?



Margotu

Hona hemen tren zahar bat. Dena margotu baino lehen, marratzuko dizkiozu: 1) ke beltz zikina. Tximiniatik gora ezkerrerantz doa. 2). Bi txantxangorri zorabiatuta. 3) Gidariaren burua leihoan, bisera eta guzti. 4) Zure gustuko animalia (zakurra, elefantea...) kabinako teilatuaren gainean.



Euskara Batzordeak hilaren 2an antolatutako ekimenen gela irabazlea: DBH 4.F. ORIARTEKO EUSKARA BATZORDEA

Euskara, bai ala ez?

Euskarak Oriarte institutuan duen egoerari buruz hausnartu dute bertako Euskara Batzordeko kideek. Egunerokoan bizi dutenarekin "kezkatuta" daudelako, "arduraz jokatzeari" erabaki dute, ekimenak aurrera eramatea; haien hizkuntzari baietz esatea

Oriarteko Euskara Batzordea

Gure inguruan, institutuan bereziki, euskararen erabilera ez da oso handia. Nahiz eta eskolako ikasle asko etxean euskaraz aritu, lagun artean gaztelaniaz mintzatzen dira. Izan ere, gure ingurunean euskararen erabilera oso apala da, eta azken urte hauetan euskarari aurrera egitea asko kostatzen ari zaio aisialdian, kirolean eta eguneroko bizitzan.

Lehen, ohikoena, gela bakoitzean hiruzpalau erdaldun egotea zen, orain, oster, egoera honek 180º-ko itzulua eman du; orain, hiruzpalau horiek dira euskaraz mintzatzen direnak. Pixkanaka, eskolako arazo garrantzitsu eta handienetako bat bihurtzen ari da, eta ez eskolan bertan bakarrik, dagoeneko arazo sozial bat baita.

Euskararen egoerak kezkatzen gaitu, eta arduraz jokatzeari erabaki dugu. Gure aurrekoek euskararen

alde egindako lanaz jakitun gara, eta hari segida ematea da gure asmoa. Zentzu horretan, esperantza dugu egoera aldatzeko gai garela, bakoitzak berea emanez eta elkarlanean arituz. Izan ere, gure ustez merezi duen balioa eman behar diogu gure hizkuntzari, gure barnean eraman beharko genuke, hau da, gehiago baloratu. Bada garaia dugun altxorra baloratzeko, gure hizkuntza bakarria baita munduan eta gure nortasunaren zati handi eta garrantzitsua baita, hala beharko luke behintzat!

Arazoa konpontzeko, lanean

Halaber, gutxi batzuk dira euskaraz aritzen direnak eguneroko, eta arazo honi aurre egiteko konponbide baten bila ari dira. Pertsona horien artean, gu ere irtenbide bat bilatzeko lanean gabilta, institutuaren eremuan

soilik bada ere. Adibidez, joan den abenduaren bian, ostiralean, Euskararen egunaren bezpera eta Euskaraldiaren bukaera zela baliatuz, Oriarteko Euskara Batzordeko kideek ekintza batzuk prestatu genituen, Mihiluze telebista saioaren antzeko probekin. Horrez gain, DBH 1 eta 2. mailakoek euskal kantuen karaokea egin zuten, euren ikasgaietan prestatutako ekintzez baliatuz. Bestalde, pegatina lehiaketa ere antolatu zen hainbat irabazle sarituz, hauek izan ziren Oriarte institutuko 2022. urteko pegatina lehiaketako saridunak: 1. saria Maitane Monge (3D); 2. saria Eneko Gallardo (2B); 3. saria Aicha Diarra (1F); 2. saria Amaia Mazkieran (Batz.2); 3. saria: Intza Arruti (2F).

Gu geu Bigarren Hezkuntzako bigarren mailan hasi ginen ekimen horietan lanean, euskara bultzatu



IKASLEAK, KAZETARI

Oriarte institutuak eta TXINTXARRI aldizkariak elkarlanean jardungo dute 2022-2023 ikasturtean. Hilean behin, Euskara Batzordea osatzen duten ikasleek artikulu bat prestatuko dute. Oraingo honetan euskarak haien ikastetxean duen egoerari buruz gogoeta egin eta erabilera gero eta apalagoari aurre egiteko gako batzuk eman dituzte.



Pegatina lehiaketako irabazlea eta finalistak. ORIARTEKO EUSKARA BATZORDEA

eta zabaltzeko asmotan. Euskara Batzordean gehiegi ez garen arren, gogor egiten dugu lan honen alde, eta gogotsu gaude proiektu berriei begira. Hasieran, bost bakarrik ginen eta orain kide berriak batu berri zaizkigu lantaldera.

Euskararen abantailak

Oraingo nerabeek, gure ingurukoek, eta orokorrean hitz eginez, ez dute abantailarik ikusten euskararen erabileran, baina baliteke abantailak edukitzea. Hainbat galdera egiten dizkiogu gure buruei honen inguruan, zer lor dezakegu euskaraz hitz egiten, euskal kulturaren murgilduz edo hau sustatuz?

Euskarak musika estilo ezberdinak eskaintzen dizkigu, rock-etik hasita reggaetoi-ra arte. Euskal Herrian musika talde anitzasun handia daukagu, hainbat talde eta bakarlariren eskutik. Horrelako gauzek, aukera paregabeak eskaintzen dizkigute gontzertu zein jaialdi apartez gozatzeko, festak egiteko eta musikaz gozatzeko.

Bestalde, antzerkia, dantza, filmak eta telesailak besteak beste, gure aisialdian oso garrantzitsuak dira, bakoitza bere estiloan.

Horrez gain, euskarak kutura propio batez gozatzeko aukera ere luzatzen digu. Euskal Herrian soilik ospatzen diren egunak eta

ekintzak ospatuz, bere tradizioez eta ospakizunez baliatuz.

Kultura harremanetatik haratago ere, gure egunerokotasunean harreman berriak egiteko tresna bezala ere erabil dezakegu, eskolan edo kanpoan. Honek guztiak beti errepikatzen den ohiko galderarantz garrantzitsua: balio al du euskarak ligatzeko?


Maitasunak ez duela hizkuntzez ulertzen egia izan arren, gure ustez euskarak ligatzeko balio du. Izan ere, aurretik aipatutako ekintzek eta planek, ondo pasatzeaz gain, elkar harremanetarako aukera paregabea eskaintzen digute, ligatzeko aukera barne. Euskara, oro har, jarduera ugari eskaintzen dizkigun kultura batekin elkar hartuta dago, eta hau ez da behar bezala baloratzen. Horrelako festa, ekintza eta aisialdirako planek, kirolaz gozatzetik gastronomiaz gozatzera artekoek, hainbat proposamen eskaintzen dizkigute, ligatzeko aukera ere emanez. Beraz, esan dezakegu gure hizkuntzak, luzatzen digun eskaintza zabalaren artean, ligatzekoa ere egiten digula, aukera ezin hobeak emanez gainera.

Horregatik guztiagatik, gure hizkuntzarenatik eta ematen digun guztiagatik, guk baiezkoa diogu, bai euskarari eta honek eskaintzen digun guztiari. Zer diozu zuk? Euskarari bai ala ez?


ZORION AGURRAK



Arkaitz
Arkaitz, zorionak aita eta familia guztiaren partez. Asko maite zaitugu. 22 muxu handi.



Iker
Egun polita izatea opa dizugu. Dagoeneko 11 urte! Muxu handi bat guztion partetik



Ainhoa
Zorionak kirolari, urpekari, bertsolari, ordezkari! Zigor gelatik askatu zaituztela antzematen da... motorra hartu ta segi aurrera!

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu.

OHARRA

Beltzak RTren saskiak irabazlea du

Beltzak RTk jakinarazten du Gabonetako otarraren zortekoa 5630 zenbakia izan dela. Avenida tabernan saldu da. Zortekoa jarri dadila harremanetan antolatzaileekin.

SUDOKUA

8		2			6			7
3		7					8	5
6		4	8					
		6	3	8		4		
4				1			7	6
5					4			2
	6	3		5				9
	4		9					8
				4	3	1		2



Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.
Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINZA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 23 DE ORUE
Larunbata, 24 DE ORUE
Igandea, 25 DE ORUE
Astelehena, 26 DE MIGUEL
Asteartea, 27 LASA
Asteazkena, 28 GIL
Osteguna, 29 ACHA-ORBEA
Ostirala, 30 URBISTONDO
Larunbata, 31 GIL
Igandea, 01 GIL
Astelehena, 02 GANDARIAS-URIBE
Asteartea, 03 DE ORUE

Asteazkena, 04 DE MIGUEL
Osteguna, 05 LASA
Ostirala, 06 GIL
Larunbata, 07 GIL
Igandea, 08 GIL
Astelehena, 09 ACHA-ORBEA
Asteartea, 10 URBISTONDO
Asteazkena, 11 GANDARIAS-URIBE
Osteguna, 12 DE ORUE

EGUNEKO FARMAZIAK:

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

ABENDURAINO

M. Gomez Bravo:
Kale Nagusia 14,
Hernani
943 55 48 92

URTARRILETIK AUERRERA

K. Aizpuru Odriozola:
Latxumbe Berri 11,
Hernani
943 33 60 77

URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKAITZA
Esperientzia duen sukaldaria behar da; arratsaldeko lanaldia. Harremanetarako zenbakia, 660 98 11 32.
Batxilergoko 1. mailako Ekonomia eta Matematika ikasgaietan laguntzeko pertsona baten bila gabiltza, ikasleei eskola partikularrak emateko. Harremanetarako zenbakia, 609 47 31 11.
Bi umei klaseak emateko neska edo mutil bat behar dugu. Bat LH3 kursoan dago eta bestea DBH3.n. Utzi mezua whatsappean zure datuekin, adina,

ikasketak, orduko prezioa... Whatsapp zenbakia: 688 74 09 31.
15 urteko neska bati euskara klase partikularrak emateko pertsona bat behar da.

Harremanetarako zenbakia, 631 57 15 40 (Arratsaldeko deitu).

ESKARIA

Lan bila nabil interna edo orduka. Adineko

pertsonak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Paperak behar bezala ditut eta eskarmentua. Harremanetarako zenbakia: 648 90 67 82.

Kursoan zehar haurrak arratsaldeko zaintzeko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia, 695 18 41 79.
Adineko pertsonak zaintzeko prest nago. Esperientzia dut eta baita paperak ere. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10.
Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79.
Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

SALEROSKETA

SALDU
Su egurra saltzen da (haritza), tximnirako, ekonomikarako... Harremanetarako zenbakia: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA
Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest dagoena, goizez nahiz arratsaldean. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA


Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA


Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 23




Larunbata, 24




Igandea, 25




Astelehena, 26




Asteartea, 27



Asteazkena, 28



Osteguna, 29



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

LARUNBATA 24

LASARTE-ORIA Eguberriak

Mari Domingi, Olentzero eta lagunak Lasarte-Oriara etorriko dira, urtero bezala, zorientasuna eta opariak banatzera. Harrera berezia prestatu die Ttakun Kultur Elkarteak, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin:

10:15ean, ikastetxeko haurren kantu jira saioa, Isla plazatik.

12:00etatik 14:00etara, eskutitzak jasoko dituzte Mari Domingi eta Olentzerok, Antonio Mercero aretoan.

18:00etan, kalejiran abiatuko dira Mari Domingi, Olentzero eta lagunak, Loidibarren pilotalekutik.

18:30ean, kalejira Okendo plazara iritsiko da. Ongietorria itxeko, ekitaldi bat egingo dute oholtzan.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

LASARTE-ORIA Eguberriak

Mari Domingi eta Olentzero Zabaleta auzoan izango dira. Auzo elkarteak antolatutako egitaraua:

10:00ean, kantu jira saioa, Basotxo plazatik.

12:30ean, 2022an jaiotako haurrei ongietorria egingo zaie, Basotxo plazan. Zabaleta auzoa, goiza.

LASARTE-ORIA Gabonetako eskea

Erketz EDTko kideek Lasarte-Oria inguruko baserrietan Gabonetako eskea egingo dute.

Santxo taberna, 15:30ean.

LASARTE-ORIA Gabonetako erronda

Alboka Abesbatzak Lasarte-Oriako erdialdeko kaleak girotuko ditu Gabon abestiek.

Lasarte-Oria, 16:00etatik aurrera.



LASARTE-ORIA Ongietorria. Olentzero, Mari Domingi eta lagunak (Xixuko, Mari Teilatuko eta Porrotx) herrira jaitsiko dira hilaren 24an. Zain izango dituzte lasarteoriatarak; ongietorri goxo eta beroa egingo diete. Ttakun Kultur Elkarteak prestatu du pertsonaia horiei harrera egiteko egitaraua, udalarekin elkarlanean: ikastetxeetako haurren kantu jira, eskutitzen jasotzea, kalejira eta ekitaldi nagusia dira programako jarduerak.

Hilaren 24an, goiz eta arratsalde, herrian barrena.

ASTEAZKENA 28

LASARTE-ORIA Ur festa

Lasarte-Oriako Udalak ur festa antolatu du Gabonetarako. 5 eta 12 urte arteko haurrek plisti-plasta aritzeko aukera izango dute. Bazkide direnek ez dute ezer ordaindu beharko jarduera horretan izena emateagatik; bazkide ez direnak, aldiz, 4 euroren truke inskriba daitezke.

Maialen Chourraut kiroldegia, 10:00etatik aurrera.

OSTEGUNA 29

LASARTE-ORIA Kontzertua

Gospel musika estiloan oinarritutako kontzertua emango du Sand & The

Soulshine Voices taldeak. Sarrerek 14 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:00etan.

OSTIRALA 30

LASARTE-ORIA Sari banaketa

Danok Kide Elkarteak aurtengo jaiotza lehiaketako sariak banatuko ditu. Sarrera doakoa da.

Blas de Lezo kalea, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak hilabeteko bigarren zineforuma egingo du, udalarekin elkarlanean: *Todo el mundo odia a Johan* filma proiektatuko du.

Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 22:00etan.

LARUNBATA 31

LASARTE-ORIA Disko festa

Disko festa antolatu du Lasarte-Oriako Udalak. Bi txanda izango ditu: 19:00etatik 20:30era artekoa familiei zuzenduta egongo da, eta 01:00etatik 04:00etara artekoa, 2023ko aurreneko gaua luzatu nahi duen ororentzat.

Andatza plaza, 19:00-20:30 eta 01:00-04:00.

OSTEGUNA 5

LASARTE-ORIA Eguberriak

Errege Magoak herrira etorriko dira. Urtero bezala, Megaba elkarteak antolatu ditu Melchor, Gaspar eta Baltasar hartzeko jarduerak:

12:00etan, haurren gutunak jasoko dituzte pajeeek Okendo plazan. Bitartean, hiru erregeek Atsotak erresidentziako egoiliarak bisitatuko dituzte.

15:30etik 17:30era, Ama Brigitarren komentuan izango dira hiru erregeak, haurrekin hizketan.

18:00etan, kalejiran abiatuko dira Melchor, Gaspar eta Baltasar, Oria auzotik. Okendo plazan bukatuko dute.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

Herrian zehar, goiz eta arratsalde.

eta dantza bezalako diziplina artistikoak uztartuko dituzte, ohi bezala. Sarrera doakoa izango den arren, antolatzaileek jakinarazi dute aukera emango dietela ikus-entzuleei ekarpen ekonomikoak egiteko, antolamendu gastuak estaltze aldera. Oriako kapera, 18:30ean.

Sare-ren deialdiak

Sare Herritarrak bi manifestazio antolatu ditu datozen asteetarako: Martuteneko espetxean bat, hilaren 31n, 11:00etan; eta Bilbon beste bat, urtarrilaren 7an, 17:00etan.

Martuteneko espetxetik hasiko dute aurreneko manifestazioa hilaren 31n, larunbatez, 11:00etan. Trena hartzeko hitzordua jarri du Lasarte-Oriako Sarek: Euskotren geltokian geratuko dira, 09:55ean. Astebete geroago, Sare Herritarrak antolatutako manifestazio nazionalera joango dira, Bilbora, urtarrilaren 7an. 17:00etan hasiko da mobilizazioa, eta autobus zerbitzua jarriko du herriko taldeak, 15:00etan Tajamar biribildugunean. Ekintza horretara joan nahi duten lasarteoriatarrek Artizar eta Ilargi tabernetan izena eman beharko dute.

GABONETAKO KIROL HITZORDUAK

ARETO FUTBOLA

GABONETAKO TORNEOA

INFANTILAK

Real Lasarte - Los Gohats

Astelehena 26. 17:40. Michelin kirol gunean.

Lasarte city - Porrusitos FC

Astelehena 26. 18:40. Michelin kirol gunean.

Rayo Fuentealbilla - The Nine Stars

Astelehena 27. 17:40. Maialen Chourraut kirol.

Los sin nombre - Los Vikingos

Astelehena 27. 18:40. Maialen Chourraut kirol.

Lasarte city - Real Lasarte

Astelehena 28. 17:40. Michelin kirol gunean.

Porrusitos FC - Los Gohats

Astelehena 28. 18:40. Michelin kirol gunean.

Los sin nombre - Rayo Fuentealbilla

Osteguna 29. 17:40. Maialen Chourraut kirol.

Los Vikingos - The Nine Stars

Osteguna 29. 18:40. Maialen Chourraut kirol.

Los Gohats - Lasarte city

Ostirala 30. 17:40. Maialen Chourraut kirol.

Real Lasarte - Porrusitos FC

Ostirala 30. 18:40. Maialen Chourraut kirol.

The Nine Stars - Los sin nombre

Astelehena 2. 17:40. Michelin kirol gunean.

Rayo Fuentealbilla - Los Vikingos

Astelehena 2. 18:40. Michelin kirol gunean.

ALEBINAK

Dinamo Lasarte - Lasarte United

Astelehena 27. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

Bayern Lasarte - Altzako Lagunak

Astelehena 27. 16:50. Maialen Chourraut kirol.

Bayern Lasarte - Dinamo Lasarte

Osteguna 29. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

Altzako Lagunak - Lasarte United

Osteguna 29. 16:50. Maialen Chourraut kirol.

Lasarte United - Bayern Lasarte

Astelehena 2. 16:00. Michelin kirol gunean.

Dinamo Lasarte - Altzako Lagunak

Astelehena 2. 16:50. Michelin kirol gunean.

BENJAMINAK

Andoain Team - Superlagunak

Astelehena 26. 16:00. Michelin kirol gunean.

Okendo United - Ausartak

Astelehena 26. 16:50. Michelin kirol gunean.

Ausartak - Superlagunak

Astelehena 26. 16:50. Michelin kirol gunean.

Superlagunak - Okendo United

Ostirala 30. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

Andoain Team - Ausartak

Ostirala 30. 16:50. Maialen Chourraut kirol.

IGERIKETA

GABONETAKO SARIA

Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta absolutuek Neguko Gabonetako Nazioarteko sarian parte hartuko dute.

Osteguna 29. 10:00 eta 16:30. Paco Yoldi kirol., Donostian.

HERNANIKO SARIA

Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta absolutuak Hernaniko Sarian lehiatuko dira.

Larunbata 7. 16:00. Hernaniko kiroldegian.

ATLETISMOA

PROBA LIBREA

Ostadar Atletismo saileko federatuek markak egiteko C Proba Librea dute. Ostirala 23. 16:30. Antonio Elorza belodromoa, Donostian.

Ostadar Atletismo saileko federatuek markak egiteko D Proba Librea dute. Ostirala 30. 16:30. Antonio Elorza belodromoa, Donostian.

LASTERKETA

SAN SILVESTREA

San Silvestre proba lehiatuko da Lasarte-Oriako kaleetan zehar. Larunbata 31. 12:30. Okendo plazan.



Zure B aukera

Kafetegia, gosari bereziekin

Hipodromo etorbidea, 15 behea
LASARTE-ORIA
676 54 30 22

KAFEAK | ZUKUAK | IRABIAKIAK | TXIGORTUAK |
GOZOAK | POKEAK | WRAPS-AK | TAKE AWAY



Eskatu Glovo bidez eta
etxera eramango dizugu!



Eguberri eta urte berri zoriontsua opa dizuegu!



Maitte

B ETELU

Ondo pasa eguberrietan!



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen administrazioa**



Aralar plaza 4 behea, Lasarte-Oria • Tel.: 943-36 48 86 • www.mbetelu.com

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!



ESTREINA EZAZU IRRIBARREA!

TITANIOZKO INPLANTEETAN PROMOZIO BERRIA
URTARRILAREN 31RA ARTE



ELGOIBAR · LASARTE-ORIA · TOLOSA
943-36 63 77